



# GEHIGARRI BEREZIA

## Saritutako lanak

### Ipuinak

1. saria: Omenaldia. *Libe Larrarte*
  1. saria (ex aequo): Gabon, laztana. *Ekain Zubizarreta*
  2. saria: Ikusi arte. *Eñaut Martí*
  3. saria: Neguko txoria. *Jon Ander Azpiroz*
- Accessita: Enara. *Josu Galdos*  
Accessita: Mistrinaut. *Iker Lizaso*  
Accessita: Coeronin, 1972ko ekainaren 2an.  
*Ibai Zubizarreta*

### Olerkiak / Bertsoak

1. saria: Lurra eta Zuhaitza. *Josu Galdos*
2. saria: Itsasoa garrasika ari zait.  
*Marisa Arruabarrena*
3. saria: Ireki begiak. *Eñaut Martí*

# Omenaldia

*Libe Larrarte*

## I

—Zer egingo zenuke zuk, bi hilabeteko bizitza geratuko balitzaizu?

—Nola?

Bere nagusi zen Alfontso medikuaren galderak harrituta utzi zuen erizain gaztea, eta ez zuen asmatu ezer esaten. Bere mahai gaineko paperak txukuntzeari ekin zion.

—Angelica, eta zuk, zuk zer egingo zenuke?

Galderari itxaroten ari zen neska pentsakor geratu zen une batez. Zerbait esatera zihoanean, bazirudien damutu egiten zela eta erantzun hobe batean pentsatzen jartzen zela.

—Horrek esan nahi du Enrike jaunari bi hilabete geratzen zaizkiola? —galdetu zuen bat-batean.

—Kasurik hoberenean —erantzun zion Alfontso medikuak.

—Arraioa, gizarajoa.

Alfontso medikuak zigarro bat piztu zuen. Angelica pentsakor geratu zen zigarroaren keari begira eta erizain gazteak bere mahai kaotikoari orden pixka bat ematen jarraitu zuen.

## II

Enrike jauna, berria jakin zuenetik, gehiago joaten zen tabernara, putetara eta txanpon makinetara. Eta zine-  
ra.

## III

Kaletik jendeak begiratzen zuenean, ez zekien hilotz bat begiratzen ari zirela. Kanpotik, planta bikaineko gizon bat ikusten zuten, hirurogei urteak aspaldi eginak bazituen ere.

## IV

Gaztetan ez da heriotzan pentsatu ere egiten, normala da. Zahartzen zarenean, maizago pentsatzen duzu berarengan. Eta zahartzen zarela konturatzen zara zure semea maitemindu egin dela jakiten duzunean. Hori da Enrikek pentsatzen zuena.

Zortzi seme-alaba izan zituen Enrikek bere emazte Ritarekin, eta honi begietara begiratuz sarritan saia-

tzen bazen ere, ez zuen lortzen gogoratzea noiz utzi zioten elkar maitatzeari. Batzuetan, Ritak harrapatu egiten zuen berari begira. Orduan, oilo ipurdia jartzen zitzaion gorputz osoan eta haserretu egiten zen.

—Zer, zertan ari zara pentsatzen oraingoan?

Azkenaldian bere senarra oso arraro zebilela pentsatzen zuen orduan Ritak.

Ohe berean lo egiten zuten eta gauero-gauero, Enrikek musu ematen zion emazteari, kopetan.

## V

Marcos, bere semeak lehenengo aldiz Claudia etxera ekarri zuenean, Enrikek iruditu zitzaion inoiz ikusi zuen emakumerik ederrena zela. Bere ile luze eta beltza bizkarraren erdiraino iristen zitzaion. Bere bi begi berdeekin Enrike aztertu zuenean, honi sekulako ezinegona sartu zion gorputzaren barru-barruan.

—Aita, ama! bera Claudia da, nire neskalaguna.

Ritari iruditu zitzaion Claudia oso ederra zela, baina ez zitzaion ongi iruditzen semea hain azkar maitemintzea. Enrikek pentsatu zuen Claudiaren azalak leunetan leunena izan behar zuela.

Afari berezia zen gau hartakoa eta Ritaren helburua dena ongi irtetea zen.

—Eta, orduan, korrika atera behar izan genuen tabernatik; ikustekoa zen nagusiaren aurpegia, ja, ja, ja, ja! Gogoratzen, Claudia? Ja, ja, ja, ja!

Marcos bere irteera dibertigarri bat kontatzen ari zitzaien gurasoei.

Claudiaren barrea, gainontzeko hiruenen gainetik entzuten zen. Haur baten barre bizia zuen. Ezin zuen geratu eta horrela egon zen denbora luzez. Rita mahaitik altxatu eta sukaldera joatea lortu zenean ere, Claudiak barrez jarraitu zuen, malkoak erori zitzaizkion arte. Rita gero eta konbentzituago zegoen bere semeak hanka sartu zuela neska harekin. Enrikek iruditu zitzaion gorputz eder haren barruan aingeru bat zegoela ezkutatuta, barrez.

## VI

Bere heriotza nolakoa izango zen imajinatzen jartzen zen askotan Enrike. Bere ohe handian egongo zen,

etzanda, maindire zuriak gorputza estaltzen ziotelarik. Rita ondoan imajinatzen zuen, negar batean, mukiak kentzen, uneoro hots gogaikarri hori eginez (irudi hark nazka keinu bat eragin zion aurpegian), eta inguruan seme-alaba guztiak izango zituen: Monica berari adiadi begira; Maria, berriz, beldurtuta egongo zen; Genaro; Hector... baina batez ere Marcos egongo zen, bere seme kuttunena.

Marcos seme-alaba guztien artean gazteena zen, eta duela gutxi arte —Claudia ezagutu arte, alegia— gurasoen etxean bizi izan zen. Enrikek asko botatzen zuen faltan bere semearekin egotea. Gainontzeko seme-alabak amazulo hutsak zirela uste zuen Enrikek, baina Marcos desberdina zen. Semearekin bazuen halako konplizitate berezi bat. Marcos oso argia eta bizia izan zen txikitatik eta aitaren antza izugarria zuen. Oso harro zegoen Enrike bere semeaz. Eta orain are eta gehiago, Claudia bezalako neska bat aukeratzeagatik. Ez zion Claudiari leporatzen Marcos etxetik eraman izana. Alderantziz, Enrikeri bihotza ukitzen zion hain bikote gazte eta ederra elkarrekin ikusteak.

Oso lasai egongo zen bere heriotzan. Ez zion hiltzeari beldurrik. Banan-banan ohe inguruan bilduta zeuden denei begiratuko zien satisfakziozko irribarrez, bizi izanaren sentsazioarekin. Eta orduantxe agertuko zen Claudia, bere aingeru hegoekin. Ohera gerturatuko zen poliki-poliki eta musu txiki baina bero bat emango zion ezpainenetan, bere begi berde ederrak pixkanaka itxiz. Eta biek batera ihes egingo zuten leihotik, Ritaren aurpegi zimurtu eta amorratua eta bere muki zapia atzean utzirik.

## VII

Marcos, maitasun osteko zigarroa piztu ondoren, sabaiari so geratu zen Claudiarekin batera.

—Uste dut zure amari ez natzaiola batere gustatu.

Marcosek bazekien hori horrela zela.

—Ez ezazu horrelakorik esan, Claudia. Nire amak oso atsegina zarela esan dit.

—Noiz esan dizu hori?

—Sukaldean. Mahaia jartzen laguntzen ari nintzaionean,

Isilik geratu ziren une batez. Marcos ohetik jaiki eta komunera joan zen. Claudiak sabaiari begira jarraitzen zuen.

—Uste dut zure aitak gogoko nauela.

—Ez daukat dudarik, maitea —erantzun zion Mar-

cossek pixa egiten ari zen bitartean.

## VIII

Sabeleko zitzada mingarriek adierazten zioten hor jarraitzen zuela batzuetan ahaztea lortzen zuen gaixotasunak.

Bera eta gaixotasunaren arteko borroka whiskyaren laguntzaz irabazten ahalegintzen zen Enrike, auzo txiroetako taberna urrunetan, bere etxetik urrun, oso urrun, badaezpada ere; bere familiaren izen ona ez zikintzeko.

Askotan gustura sentitzen zen ezezagun artean. Baina beste askotan, gau hartan bezala, ezin zuen bizitza lapurtzen ari zitzaion gaixotasuna ez zen beste ezertan pentsatu. *Strepptease*-ko dantzari ederrek ere ez zuten helburu horretan laguntzen. Gainera, dantzari guztiek Claudia ekartzen zioten gogora. Minutuak aurrera, alkoholaren eraginagatik, Claudia bera, eszenatokitik bere mahaira hurbiltzen ikusten zuen, haren jantzi labur horietako batekin, gero eta gehiago gerturatuz. Haren barre zerutiar hori gero eta ozenagoa bilakatzen zen eta, azkeneko, aingeru batena beharreak, deabruaren barrea iruditzen zitzaion bere belarri ahuletan. Orduan, izerditan blai, alde egiten zuen tabernatik. Askotan, ordaintzea ahaztuta.

Batzuetan, gau hartan bezala, urrun joate horrek etxerako bidea luzatu besterik ez duela egiten pentsatzen zuen Enrikek.

## IX

Ez zuen bera engainatuko. Besteek, akaso, sartuko zien zirria; baina bera ez zuen engainatuko. Horretan pentsatzen ari zen Rita, sukaldean afaria prestatzen ari zenean. “Gizon honek zerbait ezkututzen du. Ziur nago” jarraitzen zuen.

Egia esan, Ritari ez zitzaion gehiegi axola bere gizona zertan zebilen, seme-alabak bakean uzten zituen bitartean. Berari munduan gehien axola zitzaiona bere seme-alabak ziren eta, hortik aurrera, senarrak nahi zuena egin zezakeen.

Txikiak zirenetik, Ritak beti jakin izan zuen seme-alabak bere alde izaten. Enrike bere aitarengandik oinordetzan hartutako enpresan sartuta egoten zen beti, egun erretiratua egon arren. *Pantalones Reymondo* zen enpresaren izena. Enrikeren aitak, Alejandrok, enpresa sortu zuenean, oso etekin gutxi ateratzen zuen bertatik. Egun, ordea, nazioko enpresa garrantzitsu bat bilakatuta zegoen eta diru asko ematen zion Reymondo

familiari. Etxe izugarri handi bat zeukaten hiriaren erdigunean eta hiriko handi-mandi guztiekin festa dotoretara joaten ziren askotan.

Enrikek, unibertsitatean enpresa ikasketak burutu zituenean, ideia berri asko zituen aitaren enpresarentzat, baina hura oso ideia tradizionaletakoa zen eta ez zuen onartu inoiz ere semeak iradokitako proposamen aurreraturik.

—Aita, enpresan egiten diren galtzak jada modaz pasata daude, Milan eta Londreseko moda aldizkarietan irakurri dudanez.

—Isildu hadi mukitsu hori! —erantzun zuen aitak, bere eserlekutik altxatuz eta mahaiari kolpe indartsu bat emanez—. Nire enpresako galtzak kalitatezko galtzak dira; bost axola moda, bost axola Milan eta bost axola Londres. Ez bazaizkik nire galtzak gustatzen, badakik non dagoen atea. Lotsagabea!

Eta bulegoko kaxoitik pilula pote bat ateratzen zuen Alejandrok, kolpean pare bat irentsiz eta eskubiko eskua-ekin bihotza estutuz.

Enrikeren aita bihotzeko batez hil zen Enrikek hogeita hamar urte bete zituen egunean. Ritak betidanik egotzi zion Enrikeri aitaren heriotza, azken aldian biek izaten zituzten liskarren ondoriozko heriotza zela esanez.

Enpresan lanean ez zebilenean, berriz, bere senarrak urdanga batekin pasatzen zuela eguna uste zuen Ritak. Bakar-bakarrik arduratu behar izan zuen seme-alabez. Haurrek askotan aitagatik galdetzen zutenean, Ritak hasieran senarra defendatzen zuen, “Aita lanean dago, bihotza”, “Laster etorriko da, bihotza”, “Zuen aitak asko maite zaituzte, laztanak” eta horrelakoekin. Geroago, ordean, gizona gorrotatzen hasi zenean, haurrak erabiltzen zituen hura zigortzeko. Beti zituen bere alde seme-alabak. Eta, haiek handitzean, amarekiko maitasuna gero eta nabariagoa zen. Enrike eta Rita haserretzen ziren bakoitzean, Rita negarrez hasten zen eta beti amaitzen zuen modu berean: “Jainko maitea! Mariak honetaz jakingo balu...”, “Ai, Enrike, zer gaizki tratatzen nauzun; Monikak disgustu handia hartuko luke bere aita benetan nolakoa den jakingo balu”, “Ezin dut gehiago, Enrike, Matiasi esango diot zer egin didazun” eta abar,

Baina Marcos desberdina zen. Aitaren berdin-berdina zela pentsatzen zuen Ritak askotan, “Genio petral berbera haserretzen direnean eta zein baino zein burugogorragoak biak ere”. Itxuraz ere antza ikaragarria zuten, gainera. Marcosekin ez zegoen ezer egiterik. Aitaren

alde egingo zuen beti, oso prestua izan arren eta amari errespetu osoa zor zion arren.

Lehen asko sufritzen zuen bere senarra berandutzen zenean eta emagalduta pobreen lurrin usain merkearekin ohera sartzen zenean, ahalik eta zarata gutxien ateratzen saiatuz. Oso harro sentitzen zen Rita bere aldeko armada indartsua sortzeaz eta pentsatzen zuen erdi txolina izan behar zela bere senarra bezalako gizon batekin oheratzeko. Hori pentsatzen zuen maiz sukaldean ari zen bitartean eta beti ihes egiten zion irribarre txikiak.

## X

Urrutirako beste bidaiara batean, aspaldiko lagun bat agurtzen geratu zen Enrike. Kale estu bat zen lagunarena, eta euri putzuak zeuden nonahi. Hezetan giro horretan, mozkor bakan batzuk eta beste emagalduta batzuk zebiltzan bakarrik. Hauetako bat, Enrike ate joka ikusi zuenean, harengana hurbildu eta “Julia lanpetuta zebilek beste morrosko batekin; etorri hadi niregana guapo, gazteagoa nauk eta ederki lagako haut!” esan zion orduan. Enrikek begiratu eta irribarre egin zion. Atea zabaldu zen segituan.

—Kaixo, Julia.

—Enrike... —berrogeita hamar urteko emakume beltzaran eder bat zen, katutxo jaio berri zuri-beltz bat besoetan zuela—. Sartu, sartu!

Juliak bakarrik zekien Enrikeren gaixotasunaren berri. Enrike, azkenekoz medikuaren kontsultatik albistearrekin atera zen arratsalde hartan, ez zuen etxera bueltatzeko indarrik izan eta hiriko kaleetan zehar ibili zen luzaroan, konturatu gabe Juliaren etxe pareraino iritsi ante. Hark atea ireki zionean, Enrike begira zuen, baina begirada hutsala zen.

Enrikeren azalaren zuritasunak bat-batean gizona hamar urte zahartu zuela zirudien. Ritarekin beste liskar bat izan zuelakoan, Juliak kafe bero bat hartzera gonbidatu zuen. Mahaiaren inguruan eseri ziren biak. Enrikek ez zuen ahorik ireki. Kafearen azken zurrupada amaitzearekin batera, Juliari begietara begiratu gabe, “Medikuaren kontsultatik nator” esan zuen, eta zapiarekin ezpain ingurua garbitu zuen. Juliak, orduan, kopeta zimurtu eta Enrikeren eskua estutu zuen, gogor.

—Sabeleko minbizia dut, Julia —irribarre behartu bat atera zitzaion, emakume beltzaran eta kezkatuari begietara begiratu zionean—. Hiltzen ari naiz! —oihu egin eta barrezka hasi zen, garrasika, burua galduta beza-

la—. Hiltzen ari naiz! Ja, ja, ja, ja, ja!

Julia aulkitik altxatu eta Enrikerengana hurbildu zen. Begiak malkotan, gogor besarkatu zuen urte askotan maitatutako gizona, eta negarrez hasi zen haren sorbaldan. Enrikek barre egiteari laga eta isildu egin zen.

## XI

—Eta gaur gauean zinera joaten bagara, Marcos?

Marcos eta Claudia zentroko kafetegi batean zeuden. Claudia egunkaria irakurtzen ari zen eta Marcos leihotik begira zegoen, zigarro bat errez.

—Ezin dut, maitea; gogoratzen Carlosen etxeko afa-ri hori? Gaur gauean da.

—Eta ez bazara joaten?

—Joan egin behar dut. Egun gutxitarako etorri da hirira eta lagun guztiak bilduko gara. Gainera, laster herrira joango gara eta ez dut bestela luzaroan ikusiko. Seguru zaude ez duzula etorri nahi?

—Ez, lasai —Claudiak pentsatu zuen Marcosen lagunak oso zirela gogaikarriak mozkortzen zirenean.

—Eta zer egingo duzu, bestela?

—Zinera joan.

Marcosek leihotik begiratu zuen atzera, kafetegiko kristalari kea boteaz. Kanean, uda giroa nabaritzen hasia zen. Ohi baino jende gehiago zebilen kanean, neskak arropa gutxiagorekin zeuden jantzita eta haur koadri- la bat harrapaketan zebilen galtza motzetan. Haize leu- nak nesken ilea ukitzen zuen leunki eta haien soine- koak pixka bat jaso.

Marcosek mahai azpitik begiratu zuen eta, Claudiaren gona gorria ikusi zuenean, irribarre egin zuen neskari begira. Hark egunkaria irakurtzen jarraitzen zuen, mutila begira zuela konturatu ere egin gabe. Marcosek pentsatu zuen orduan ez dagoela gauza ederragorik, emakume baten aurpegia baino, kontzentratuta irakurtzen ari denean.

—*El ladrón de bicicletas* —esan zuen bat-batean Clau- diak.

—Zer? —ustekabeen harrapatu zuten Marcos, nes- karen begiek.

—*El ladrón de bicicletas* —errepikatu zuen Clau- diak—. Hori ikusiko dut gauean.

## XII

Beti obsesionatu izan zuen heriotzak. Eta orain, bere azkenetan, Enrikek inoiz baino gehiago ezin zuen herio- tzaren ideia burutik kendu. Bere heriotzan pentsatzen

zuen, baina baita munduaren amaieran ere. Herrialde- ren batek bonba nuklearra erabiltzearen mehatxuak bel- durtzen zuen, batez ere.

Oraindik itxura ederra mantendu arren, erdi gorra zen, ikusmen kaskarrekoa eta operazio batzuk zituen gainean. Oso gutxitan ikusten zitzaion jada liburu bat esku artean zuela, edota telebistari begira. Baina zine- ra oraindik joaten zen; orain inoiz baino gehiago, gai- nera.

Ritak apenas laguntzen zion. Lehenengo aldiz zine- ra joan zirenean, negar asko egin zuen Ritak pelikula- ko protagonisten gorabeherekin eta Enrikek, lasaitu zedin, dena gezurra zela esan zionean, (“Lasaitu zaitez, emakumea, pelikula bat da, dena gezurra da”); sutan jarri zen Rita. Engainatua sentitzen zen, sufritu egiten zuen pelikulako gizon gizarajoa eta bere semea Erroma osoa goitik behera zeharkatzen ikusita, bizikletaren atzetik, eta zinetik alde egin zuen, gehiago ez zela bueltatuko esanez. *El ladrón de bicicletas* ikusi zuten. Enrikeri orain- dik, garai hartan oso xelebrea iruditzen zitzaion bere emazte izango zena. Maiteminduta zegoen.

Zine aretora bidean, Enrikek uda usaina nabaritzen zuen giroan. Gaua epela zen. Oso gustura zihoan pasea- tzen eta kontuak gogoratzen. Laster herrira joango ziren gainera, oporretara, beti bezala. Enrike, bere herriko lagunez gogoratzen zen bitartean, kapela ondo jarri zuen buru gainean, keinu dotore batez. Federikorekin ehi- zan ibiltzera joango zen iritsi eta hurrengo egunean. Auskalo zer kontatzen zion oraingoan Federikok. Herri- ko alkatea ere gonbidatu beharko zuten etxera, afaltze- ra, beren udako etxea urte osoan zaintzeagatik. “Etxea utzi zenuten bezalaxe dago, Enrike” esango zion hark iritsi bezain pronto. Etxe benetan ederra zen, oso han- dia, leiho askorekin eta herria zein bailara osoa ikusten ziren bertatik.

Baina Enrikek, aurren, inoiz baino gogo gehiago zuen herrira joateko, Claudia beraiekin etorriko baitzen. Clau- dia imajinatzen zuen, etxeko terrazan, soineko loredun batekin eta eguzkiari begira, bere ile luzea haizeak astin- tzen zuela.

Gogoeta horietan zine aretora iritsi zen. *El ladrón de bicicletas* ematen zuten.

## XIII

Ez zitzaion gustatzen pelikula hasita zegoela zinera sartzea, baina oraingoan ere presaka ibili zen eta beran- dutu egin zitzaion. Hamar bat urte zituenean ikusi zuen

Claudiak ematen ari ziren filma. Gurasoekin ikusi zuen orduan, baina oraingoan bakarrik egin beharko zuen.

Aretoa erdi hutsik zegoen. Claudia beti atzeko eserlekuetan esertzen zen, aretoa osotasunean ikustea eta, pelikula oso aspergarria baldin bazen, jendeak zer egiten zuen begiratzea gustatzen zitzaiolako. Xehetasunei begira egotea gustatzen zitzaion.

Oraingoan ere azkeneko ilaran eseri zen, kapeladun gizon baten ondoan. Eseri eta segituan berokia kendu zuen eta eroso jartzen saiatu zen aretoko eserleku zaharrean. Pelikula hasita zegoen.

#### XIV

Ez zuen hasieran ezagutu ondoan eseri zitzaion neska beltzarana. “Nola liteke horrelako neska eder bat zinera bakarrik etortzea?” pentsatu zuen segituan Enrikeri. Bere garaian horrelakorik ez zela gertatzen pentsatu zuen gero. Berokia kentzen ari zenean konturatu zen nor zen neska hura, “Claudia!”, eta ikusi zuen lehen egunean sartu zitzaion ezinegon berbera sartu zitzaion Enrikeri gorputzaren barren-barrenean.

—Nola liteke horrelako neska eder bat bakar-bakarrik etortzea zinera? —bota zion orduan Enrikeri.

—Enrike! —egin zuen orduan Claudiak, aurreko ikusleak buelta eman eta kexatzen zitzaizkiolarik—. Enrike... Hau ustekabea! Eta nolatan horrelako gizon galanta bakarrik zinean?

—Zinemazale zahar bat besterik ez naizelako eta inork maite ez nauelako.

Claudiak gogotik egin zuen barre eta aurrekoak berriro ere kexatu egin ziren.

—Sssh...!

—Barkatu... —lotsatu zen Claudia. Eta ahots apalagoarekin Enrikeri zuzendu zitzaion—. Isildu egin beharko dugu -eta, begi-keinua eginez, pantailari begira jarri zen.

Enrikeri denbora gehiago behar izan zuen pantailari begiratzeko. Oraindik Claudiaren aurpegiari zoraututa bezala begira jarraitzen baitzuen. Gainera, begi-keinua sabelean berriz ziztada mingarri bat eragin zion. “Gaixotasun madarikatua, izorratu egin behar al didak momentu hau ere?” pentsatu zuen bere golgorako.

Pantailari begiratu zionean ere, Claudia oso gertu sumatzen zuen. Bere lurrina usain zezakeen.

Dudarik gabe, bere bizitzako ordu eta erdi zoriontsuenetarikoak izan ziren. Pelikulan zehar Claudia noizean behin belarrira gerturatzen zitzaion eta “Haur txi-

kiaren interpretazioa ezin hobea da!” edota “Marcos eta zure antza dute aita-semeek, baietz?” bezalakoak esaten zizkion. Enrikeri, orduan, begiak itxi eta goitik behe-rainoko hotzikara sartzen zitzaion. Geroztik, norbaitek bere pelikula gustukoenez galdetuko balio, El ladrón de bicicletas erantzungo zukeen Enrikeri segituan.

#### XV

Zinetik irtetea, zerbait hartzera joan ziren ondoko tabernara eta ia gau osoa eman zuten pelikulaz hasieran, beren gauzez gero eta bizitzaz orokorrean hizketan.

Taberna pixkanaka husten joan zen. Kanpoan ilun zegoen eta jende gutxi zebilen. Claudiak eta Enrikeri berrikeran jarraitzen zuten.

—Marcosek zurekin nagoela jakingo balu, jeloskor jarriko litzateke —eta barrez hasi zen ostera.

—Egia al da hori?

—Bai, bai! Sinetsidazu, egia da! Ja, ja, ja, ja! —bat-batean isildu egin zen eta horrela jarraitu zuen—. Izan ere, ez da harritzekoa —eta Enrikeri begiratu ordez, burua jaitsi eta hutsik zegoen edalontzira begiratu zuen

—Oso gizon ederra zara, Enrike. Niretzat ohore handia izan da gau honetan zurekin egon izana.

Enrikeri eskuekin Claudiaren kokotsa hartu eta burua altzarazi zion.

—Ohorea nirea izan da. Zure alboan, ni bezalako zahar bat gazte sentitzea lortzen duzu zure edertasunarekin. Oso pozik nago Marcosek zu aurkitu zaituelako.

—Asko maite dut Marcos. Oso zoriontsu naiz berearekin eta hein handi batean zuri zor dizut.

—Niri?

—Bai, asko miresten zaitu eta antza handia duzue. Horregatik.

Momentu batez isilik geratu ziren biak, bata bestearekin begira.

—Asko dauka ikasteko oraindik! —bota zuen Enrikeri, isiltasuna hautsiz.

Barre egin zuten gogotik biek. Kanean jada ez zebilen inor eta tabernako zerbitzariak erratza pasatzen, aulkiak jasotzen eta dena txukuntzen ari ziren.

#### XVI

Abuztuko goiz sargori bat zen. Hiritik urrun, auzo txiro eta marjinatu bateko etxe zahar baten sukaldean, katu txiki zuri-beltz bat zebilen jolasean.

—Julia San Sebastian? —eta atea jo zuten.

Juliak katutxoa besoetan hartu eta atea zabaldu zuen, mesfidati.

—Julia San Sebastian? —mutil gazte bat zen, postaria. Gutun bat luzatu zion:

—Presakoa da.

—Niretzat? —asko harritu zen Julia.

—Julia zara, ez?

—Bai, bai; hala naiz.

—Ba, orduan, sinatu hemen —eta boligrafoa luzatu zion.

Juliak sinatzen zuen bitartean, postari gazteak katu-txoari maite-maite egin zion.

—Nola du izena? —galdetu zuen mutilak.

—Oraindik ez diot izenik jarri.

—Ez daukazu izenik e, pitxin...

Juliak boligrafoa itzuli zion eta gutun-azalari begira geratu zen, kopeta zimurtuta eta adi-adi.

—Eskerrik asko eta egun ona izan! —agurtu zen postari gaztea.

Juliak ozta-ozta egin zion kasu, Marcos Reymondo izena gutun-azalean idatzita ikusi zuenean. Irekitzen hasi zen oso azkar, oso baldar, eta katu txikiak ihes egin zion besoetatik, lurrera salto eginez. Gutuna atera eta irakurtzen hasi zen, zabalik zegoen atearen kontra jarrita.

*Kaixo, Julia!*

*Marcos naiz, Enrikeren semea. Agian nire aitak hitz egin-go zizun noizbait gutaz, bere seme-alabez; agian ez, ez dakit.*

*Berri txar bat eman behar dizut, Julia. Aita hil egin da gaur goizean. Zuk jakitea nahi nuen, badakit lagunak zinetela.*

Garrasi ito batek egin zion ihes Juliari. Irakurtze-ari laga eta arnasa hartzen saiatu zen. Askokostatzen zitzaion zutik mantentzea eta lurrean eseri zen. Katutxo zuri-beltza segituan gerturatu zitzaion miau-miauka, jabeari zerbait sumatuz bezala. Segundo batzuek horrela egon zen, lurrean eserita, atearen markoari begira; baina aldi berean ezerezari begira, katutxoak eskua miazkatzen zion bitartean. Azkenean, jakin-minak edo egin-beharrak bultzatuta, irakurtzen jarraitu zuen.

*Ez naiz zuen artekoagatik haserretzen, aspalditik nekien, aitak jakin ez arren. Zuregana zetorren batean atzetik jarraitu nion eta leihotik begira egon nintzen pixka batean. Orduan ikusi nuen benetako maiteminduen elkarrizketa bat iruditu zitzaidana leben aldiz. Geratu gabe ari zineten hitz egiten eta barrez. Ez nuen aita inoiz borrela ikusi.*

*Alfontso medikuak esan digu sabeleko minbizia zuela; bai-*

*na aitak guri ezer ez kontatzeko agindu ziola. Zuk ba al zenekien, Julia? Egia esan, ez dauka zentzu handirik baur galdetzeak orain. Baina jakin izan banu, ez dakit, bere alboan gehiago egoten saiatuko nintzatekeela uste dut. Aitak, ordea, ez zuen berarengatik errukirik sentitzerik nahi.*

*Azken hilabeteetan, herrian, aita oso gustura ibili zen. Uste dut herrian zela zoriontsuen. Federiko bere lagun minarekin ia egunero joaten zen ebizan aritzera.*

Haur txiki bat bezala hasi zen Julia negarrez bat-batean, eta gutunak irauten zuen bitartean, ez zen gertuko.

*Badakizu zenbat gustatzen zitzaion txakurrak hartu eta mendira joatea, goiz guztirako. Ez dakit inoiz herrian egon zaren, baina paisaia zoragarriak daude bemen.*

*Gure etxetik herri osoa ikusten da. Festa zoragarriak ospatu ditugu azken aldian etxean. Aita oso pozik ikusten zen basieran, baina aitortu behar dizut azken aldian pentsakor samar ikusten nuela. Alkatea gonbidatu genuen festa goizaldera arte luzatu zen, eta aita etxeko gela desberdinetan galtzen zen. Ezinezkoa zen berarekin egotea. Claudia eta ni bere bila ari ginen batean, etxeko liburutegian topatu genuen, koadro bati begira. Koadroan gizon zahar bat ageri zen obean etzanda, ondoezik zirudien, eta obe inguruan bere senideak ziruditenak zeuden bilduta, batzuk negarrez, besteak oso triste. Zertan zebilen galdetu genionean, bere heriotza horrelakoa imajinatzen zuela esan zigun. Nik, orduan, ez horretan pentsatzeko eta gurekin dantza egitera etortzeko esan nion. Berak erantzun zidan gazteek ez dutela heriotzan pentsatu ere egiten; baina bera zaharra zela eta hiltzeko ordua iritsi zitzaiola esan zigun. Claudia oso triste jarri zen eta mesedez eskatu zion berarekin azken baltsa dantzatu zezan. Gonbidatu guztiak Claudiari eta aitari begira egon ziren baltsa amaitu artean. Oso hunkigarria izan zela esan behar dut. Dantzaldia amaitu zenean, guregana gerturatu zen eta bikote zoragarria egiten genuela esan zigun, malko artean.*

*Ez genuen gehiago ikusi gau osoan.*

*Gaur goizean ama etorri da gugana aita hiltzen ari zela esatera. Haren obe ingurura iritsi garenean, justu-justu bertan geundenei begiratzeko denbora izan du eta begiak itxi ditu betiko.*

Juliak ere begiak itxi eta Enrike bere heriotzan imajinatzen saiatu zen, lortu gabe. Bere alboan ikusten zuen, baina etxean: hizketan, musuka, barrez...

*Eskerrik asko nire aita maitatzeagatik.*

Gutuna bular artean estutu eta negarrez jarraitu zuen Juliak, katutxoak negarra zirudien miauarekin laguntzen ziola.

# Gabon, laztana!

## Ekain Zubizarreta

—Gabon, laztana!

Begiak apur bat ireki eta bere irudia antzeman nuen ilunpean; ezin esan umore txarrez ala onez zetorren. “Gabon” hotz batez erantzun nion, ahots nagiz. Nire ondoan etzan zen erantzi ondoren eta laztanka hasi zen. Edozein egunetan lanegunari buruz galdetuko niokeen, baina hartza neguan baino sakonago nengoen lo.

—Gaur lasai joan dun txanda. Lau mozkorren arteko liskar bat bakarrik. Egun aspergarria benetan.

Arduragabetasuna adierazi nahi zuen hasperen antzeko bat egin nion.

—Hori al dun dena? —ahotsaren tonua lasaia zen, jolasean ari zen—. Zortzi orduko txanda batetik etorri, egun osoan ikusi gabe egonda, eta hori al dun merezi dudana harrera guztia? —ahotsaren tonua pittin bat igo zuen.

—Ez duk hori, maitea. Oso nekatuta nagok eta nahia-go diat bihar kontaktzen badizkidak lanekoak. Ondo lo egin! —lasaia baina garbia.

—Baina nola? Lo egin nahi dunala esaten ari haiz? Etxera heldu naun! Heldu dun eguneko momenturik onena! Heldu dun jolasteko unea!

Banekien aspalditik zer zen nahi zuena, gauero bezala. Gau hura, ordea, ez zen egokiena, ez nuen gogorik.

—Gaur ez, mesedez —nekatuta nengoela errepikatzeraz nindoan, baina iritziz aldatu nuen—. Hilerokoa jaitsi zaidak eta ez diat izarak zikintzeko apetarik.

—Hilerokoa? Ez al zitzainan bi aste barru edo tokatzen?

—Baietz uste nian, baina badakik, ziklo hauekin ezin duk asmatu.

—Behingoatik berdin izango dun halere, ez? Bihar goizean ez dun zereginik eta aldatuko ditun izarak.

Bere tonua serioa zen eta buru-barruko alarma bat erne egoteko esaten ari zitzaidan, iratzartzeko erabat, egoera arriskutsu bilaka zitekeela. Buelta erdi eman eta zuzen begiratu nion.

—Benetan ari nauk, maitea, sabeleko oinaze honekin ezin diat ia mugitu ere egin; bihar hobeto egongo nauk, nire hitza ematen diat.

Esan nion moduagatik edo hain seguru esan niola-

ko, ez dakit zergatik, baina susmo txarren bat hartu zuen.

—Hilerokoa, e? —ohartzerako, bere eskua nire hankartean zuen—. Hemen ez zegon tanpoirik, gezurti halakoa!

Ez nuen denbora askorik eduki; sututa, nire ondoan zutitzen ikusi nuen, argia piztu zuen jomuga bereizteko eta eskuin eskua altza zuen airera, zuzen zetorren nire begiondora.

Supituki jaiki nintzen, bihotza inoiz ez bezala tau-paka, begiak ezin irekiago, gorputza borrokarako prest. Lokamuts bat baino ez zen izan oraingoan. Eskerrak! Baziren egunak horrelako ametsekin esnatzen nintzenak eta beste batzuetan errealitate hutsa zen hura, zori-txarrez.

Ohetik altza eta komunera joan nintzen; ur pixka bat edan, Nahiaro so egin eta berriz ere ohera. Oraindik goizaldeko ordu biak ziren. Tamalgarria bazen ere, arrazoi zuen zeken hark: bere lepotik bizi nintzen eta ez zegoen sobran eskatzen zidana ematea. Azken finean sexua gure behar oinarrizko bat da, azken mendeetan gaizki ikusia izan arren. Baina hain zen nik espero nuenarengandik ezberdina!

Txikitatik Barbie eta Kent-en istorioa kontatu ez balidate... eta ezta printze urdinarena ere! Nolako kaltea egin zidaten txatxukeria haiek guztiek!

Eskua zuzen zetorkidan, bizi-bizi. Aurpegia bueltatu zidan eta, gero, berriz zuzendu zidan beste eskuarekin emandako beste zaplada batek. Hurrengo kolpea ukabilkada latz bat izan zen sudurrean, bete-betean. Aurpegia tapatzea lortu nuen, baina lurrera bota ninduen eta ostikadaka hasi zen. Zerbait esaten ari zitzaidan, baina belarritik ateratzen ari zitzaidan odolak ez zidan entzuten uzten. Armiarma hilzorian baino bilduago nentzan han, ekaitza baretu zain. Inoiz baino luzeago ari zen, ordea; jada konortea galtzeko zorian nengoen. Uste nuen ez zela geldituko! Egunen batean eskuetatik alde egingo zion egoerak!

Oihu egin eta ohe azpian sartzen saiatu nintzen, baina orkatiletatik heldu eta zaku zaharra legez arrastaka atera ninduen ohepetik. Ni ere ostikoka hasi nintzen orduan, aska nintzala erregutzen nion bitartean.



—Zer uste dun, urdanga horrek, ume bat bainintzen adarra joko didanala? —ezker zangoa goratu zuen eta nire saihetsetan finkatu zuen jomuga.

Oraingoan, izerditan blai esnatu nintzen, erotuta, asaldatuta erabat. Eskuak begiondotik, sudurretik eta saihetsetatik pasa nituen, ubeldu berrien bila. Amesgaiztoa hau ere! Ez zen justua nire burmuinak horrela traizio egitea, nahikoa sufritzen nuen bestela ere! Nahikoa nuen hura jasatearekin, ez nuen etsai gehiago nahi! Askotan entzuna nuen etsairik handiena norbere burua izaten zela; baina ez, ez zen nire kasua, zoritzarrez.

Putaseme hark ez zuen ezer merezi, ez! Bera izango zen jateko ogia ekartzen zidana, baina horrek ez zion ezertarako eskubiderik ematen. Umemoko higuingarri harroputza! Ez nekien asko bere gaztaroz, baina ziur ez zela mutiko arrunta; orduan ere igarriko zitzaizkion azkenaldian azaleratzen zituen jokabide haiek, horrelako emazte bat “zuzentzeko” ezinbestekoak zirenak bere ustetan. Kabroi alaena!

Odola borborka, gorrotoz gainezka egin beharrean, jaiki eta komunera joan nintzen, oraindik 4:30ak ziren, ordu erdi bat nuen oheratzeko. Ispiluak nire gorputza erakutsi zidan bainuko errezele itxi aurretik: eder eta mamitsua izan zen hura zahartuta eta argalduta zegoen; ez urteen poderioz, ordea. Markatuta zituen igarotako egun goibel guztiak, irain guztiak, neke guztiak, mailadura guztiak.

Nola iritsi ote nintzen hartara? Zer egin nuen gaizki? Azken urtera arte dena ondo joan zen, baina Nahia jaio zenean dena aldatu zen: liskarrak konpontzeko hitzak erabiltzetik irainak erabiltzera pasa zen Imanol eta, berehala, indarra erabiltzen hasi zen. Gustatu egiten zitzaio-la nabari zen, gainera. Jeloskor zegoelako al zen? Apika, alabari denbora gehiago eskaintzen niolako izango zen, nonbait irakurri nuen antzeko gauzarik. Kontua okertuz zihoan, ordea, egunetik egunera handiagoa zen “egurra” eta eskuetatik alde egiten ere hasi zitzaion. Egunen batean jipoituta akabatuko ninduen, banekien.

Ur beroaz gorputza goitik behera busti nuen.

—Baina, Nora! Zer dun? —amaren aurpegia beldurezko film batekoa zen.

—Nora! Nondik hator? Zertan ibili haiz? —aitarena hotzagoa, betiko moduan, baina urduri zegoela erakusten zuen.

—Zer? Imanolek egin dinala hori? —aitaren tonua harridurazkoa baino haserrezkoa zen—. Nik hori sinestea nahi dun, ala? Imanolek hori? Gure Imanolek?

—“gure” hitza nabarmenduz.

Burua jaitsi eta baiezkoa egin nion buruarekin. Zeinek, bada?

—Erotu egin al haiz, Nora? Imanolek hori egin dinala sinestea nahi dun? —haserre bizian mintzo zitzaidan, eskuekin imintzioak egin zituelarik.

Txorrota itxi eta arnasa sakon hartu nuen; nire aitaren hitzak izan ziren, bai. Amaren ezintasunezko begiradaren aurrean aitaren errieta entzun nuen. Bere ustez, banatu egin nahi nuen eta itxura penagarri hartan azaltzea justifikazio bat edukitzeko bakarrik egin nuen. Bai, noski! Haiek ez ziren ubelduak, makillajea zen! Hamasei urterekin ez nintzen nahastu, ez, etxe hartatik alde egitea izan zen onena.

Nahiarengana hurbildu nintzen. Lotan zegoen, baina ez zegoen lasai. Artega, ametsetan edo, alde batera eta bestera mugitzen ari zen eta negarrez hastera zihola zirudien. Nire egonezina berak ere sufritzen zuela zirudien. Besoetan hartu orduko, begiak ireki zituen eta apur bat lasaitu zen. Magalean hartu eta aurpegira begiratu nion; begietara zuzen, segidan. Ez nuen, orain arte bezala, umetxo txiki bat ikusi, proiektu bat, ondo bizi eta bizitzaz gozatuko zuen neskatila bat. Urte askoan bere ardura bakarra jolasa izango zuen neskatxarrik ez nuen ikusi. Bera ere ni bezalakoa izango zen, bere amona bezalakoa: gizonen munduan jaio eta bizi beharko zuen, hori zen egia hutsa.

Aho-zabalka egin zuen. Oraindik umeegia zen ezer sumatzeko, oraindik izango zituen urte gozo batzuk aurretik.

—Ai, bihotza! Hi ere artega al hago? Zer gertatzen zain, bada? —nire ahotsa entzutea atsegin zuen—. Hik ere entzun gaitun sesioan, ezta?

Lasaitu egin nahi nuen; oraindik bueltaka nituen buruan ukabilkada eta ostikada haiek. Burua, ordea, traizio eginez beti ere, gaztarora itzuli zitzaidan. Han nengoan ni, hamasei urterekin nire lehenengo parrandan. Nire auzokoa zen mutil bat (20 urte edo izango zituen) hurbildu zitzaidan, aspalditik ezaguna, eta dantzara atera ninduen. Ederki pasa nuen dantzan eta, gehiago ezin nuenean, pare bat kopa atera zizkidan, *Las Cadenas* anisaren pare bat kopa. Nik ordura arte ez nuen ezer edan eta berehala egin zidan efektua alkoholak. Ez dut oso ongi gogoratzen jarraian gertaturikoa, baina gehiago atera zizkidan aurrena eta, korderik gabe geratu nintzenean, inork ez daki zer egin zuen nirekin. Hurrengo goizean aitaren zaplada batekin esnatu nintzen, etxe-

ko atarian; bertatik alde egin eta lau urte geroago, zer egiten nuen ez nekiela, beldurtuegi egia kontatzeko. Goizetik gauera heldu bihurtu nintzen, gazte izateari utzi nion betiko. Amak ez zidan inoiz gertatutakoaz galdetu.

Hatz lodia estutu zidan Nahiak, oraindik ez zegoen lo.

—Zertanari nindunan pentsatzen? Benetan hori jakin nahi dunala? —burugabea zen urtebeteko alabari horrela hitz egitea baina hitz egitea zen kontua eta nik ez nuen besterik buruan—. Lehenago edo beranduago jakingo dun, bai, eta ez din kalterik egingo ohitzen joateak —irribarre bat eta soinu batzuk egin zituen, ez zirudien lotarako gogo handirik zuenik.

—Ba, oso erraza dun, badira gure artean itxura arrunta duten gizon batzuk, munduko gaitzik handiena baino arriskutsuagoak, konplexuz beteak, gizakien artean doilorrenak, ziztrinenak, beren ezintasuna, txikitasuna, indarrez garaitu nahi dutenak. Indarra ahulagoen aurka erabilia, noski. Eta badira, bestalde, gure antza duten emakumeak, egunero sufritzen dutenak, isilpean

sufritzen dutenak, beren borreroa maite dutelako edo maite zutelako, haren pare jarri nahi ez dutelako edo pasako den moda bat dela uste dutelako, ezer egiten ez dutenak. Laguntza eskatzeko ere nahikoa izututa, sine-tsiko ez dituztelakoan edo. Egunero burua makurtzen dutenak, inoiz burua altxatzeko gai izango ez direnak. Ni ez naun horrelakoa, horrelakoa izateko hezia izan banaun ere, ezingo niken horrela bizi luzaro. Ni salto egiteko jaio nindunan, korrika egiteko, kantatzeko, hegan egiteko, erortzeko, zutitzeko... bizitzeko! Eta sasikume horrek ez zidan eragotziko! Emakume gajo horiek ez bezala nik erantzun egingo zionat! Indartsu gainera, erdizka geratzen banaun akabatu egingo nain eta. Gaur etxeratzen denean batearekin burutik behera joko zionat, seko betirako!

Nahia ez zegoen eroso, negarrez hasi zen. Ni, ordea, berotuta nengoen, aspaldiko partez, alai eta eroso. Zazpi bat entzun nuen atzean.

—Gabon, lazтана! Haurtxoari ideia bakezaleak barneratzen ala? —bere ahotsean tonu iraingarria nabaritzen zitzaion.

# Ikusi arte

*Eñaut Martí*

Goizeko lau eta erdiak eta oraindik balkoian zuen banku ihar horretan eserita jarraitzen zuen, jadanik, etsipenaren etsipenez, puntua egiteari utzita. Berez, gizona gau horretan etortzekoa zen itsasotik, baina gau osoan ez zuen urrunean izar itsusi bat besterik ikusi. Milaka ziren istorioak, marinelenak, etxera itzuli ez zirenekoak, baina bere senarrak bazekien, ezin zuela hil, ezin zuela itsasoan geratu; emaztea eta seme alabak zaindu beharrrak zituela lehorrean; bazekien ezin zuela.

Bostak jotzera ez zen ailegatu, Maria herriko sirenak iratzarri zuenean, nahi gabe, konturatu gabe, nekearen poderioz, loak garaitu baitzuen. Laster batean, oraindik begietako makarrak kentzen hasi gabe zegoenean, kaleak jendez betetzen hasi ziren. Denak norabide berean, hondartza bidean. Aisa, loak utzi zion azkarrenen, kalerako arropa jantzi eta karriketara irten zen norbaitek zerbait argituko ziolakoan. San Prudentzio! oihukatzen zuten oriotarrek behin eta berriz, hondartza alde-  
ra seinalatzeari utzi gabe. Presaren presaz, Maria ez zen konturatu bere gizonak lan egiten zuen ontzia zela, Txurruka parera heldu zen arte; baina, bertan, ezintasun batek, bere gorputz osoan barreiatu zen ezintasun batek, belaunak dardarka jarri zizkion, izerdi hotza, beroa, mal-koak...

\*\*\*

Ez zuen askoz gehiago gogoratzen, ez zuen nahi memoriarik egin, ez zuen nahi oroitu. Baina hala ere, 1968 hartako ekainaren 7tik, ez zuen egun bakarrean ere huts egin kanposantura; egunero, euri zein kazkabar, hotz nahiz bero; egunero, igandeak barne joaten zen margarita berri bat bere gizonaren hilobian zuen loreontzi mardulean uztera, denek jakin zezaten zenbat maite zuen. Hain zituen gogoko, hain gustuko Juan Marik margaritak, hain zituen maite...

Bien bitartean, bi urte luze igaro ziren Orion, baina zauriak beti bezain gazi, beti bezain zauri jarraitzen zuen, ezin itxi, inoiz erretzeari utzi gabe. Mariarentzat ere bi urte: etxetik kanposantura, kanposantutik etxera, eta gutxi gehiago. Bere ama enkargatzen baitzen umeez eta etxeko lan eta erosketez. Hura ez zen bizi-tza; itzalean, isilik, fantasma bat bezala. Baina minak

ez zion burua altxatzen uzten, minak ez zion arnasa lasai hartzeko segundo bat ere ematen, ez zion ezertan uzten. Etxean, egunerokoan egon litekeen ezberdintasun minimoa, berarentzat, Juan Mariri traizioa egitea baitzen, desleiala jokatzea.

Hain zen ona, hain polita, aurretik zuten etorkizuna; eta dena perfektu zihoan, ezin kexa zitekeen ezertaz egun madarikatu hark atea jo gabe etxean sartzea erabaki zuen arte. Seme-alaba jaio berriez gozatzeko betarik ere ia ez zuen izan gizonak; planak bai, plan asko zituzten, gustuko zuen Juan Marik planak egitea. Itsasoan ez zegoen bakoitzean, bueltatzean, hau, hori eta edozer emango ziola zin egiten zion beti, eta beti, hau, hori eta edozer ematen zion. Mariak sexua zuen gogoko, sexua; ia sentimenak galdu artekoa, erotzerainoko sexua, bat, bi, hiru... izerdiak begiak estaltzen zizkion arte, gizonaren aurpegia izerditan, neketsu, eta erruki eske geratzeraino. Hain zen sutsua... eta Juan Marik, hori guztia eta gehiago ematen zion.

Egun hura baino urte eskas lehenago ezkondu ziren, maitasunaren maitasunez. Sua zegoen bien begietan, Maria zuri zerutiarrez jantzita, soineko ezin eleganteago batean; eta Juan Mari, frak traje ilun eder hartan; gau hartan ere, ia konortea galtzeraino egin zuten maitasuna, bat, bi, hiru... askotan; gogoan zituen oraindik Mariak bere senarraren izerdiak, oihuak, laztanak... eta, gutxi gorabehera, bederatzi hilabete geroago jaio ziren bikiak, hain ziren ederrak, hain zintzoak...

\*\*\*

Beste behin, negarrez oheratzen zen Maria guztia gogoratu, gauero-gaueroko errezoek, zergatik funtzionatu ez zuten bere buruari galdetuz. Eta oheko izarretan lo hartu ezinik, eskuekin bilatzen zuen bere senar ohia, goizeko zortzietako kanpaiak jo arte. Orduan, egun hartatik ia kendu ere egin ez zuen bere begien kolorea bezain iluna zen soineko beltza jantzi, eta kanposantura bidean jartzen zen. Baina egun eguzkitsu hartan ez zen bazkaltzerako bueltan, ez eta afaltzeko, ez gosaltzeko...

\*\*\*

Goizeko hiru eta erdiak ziren, baina herriko sirenak

ez zuen Ines iratzarri, betiko moduan, esna baitzegoen izaretan, izerditan blai, hotzez, eskuekin norbait bilatu nahian. Berak ere, beste askok bezala, bere senarra barran galdu baitzuen.

Urte erdi eskas ere ez zen izango Pedro Joxe etxera itzuli ez zeneko hura. Gogoratze hutsak beldurra ematen zion Inesi; bakarrik sentitzen zen iluntasunean, baina baita egunaren argian ere; bakarrik, hutsik sentitzen zen. Egunero-egunero, bere senar ohiak hain gustuko zuen itsaspeko begiratokira joaten zen; leialtasuna, fidelitasuna gordez bere defuntuari, horrela, minak, zenbait segundoz, une batez bazen ere, soka ahultzen baitzion lepotik eta arnasa errazago hartzen uzten baitzion.

Sirenen hotsa zela eta, kalera irten zen ahalik eta bizkorren; denak barrarantz beste behin. Barkuak, noiz-nahi ondoratzen ziren han. Asko ziren familiak, emazteak, haurrak... beraien etxeko gizonak barran galdu zituztenak, eta beste hainbatetako bat izango zela pentsatu zuen Inesek, baina oker zegoen.

Ur gainean, iluntasunak uzten zion neurrian, soineko beltz eder bat bereizi zuen, eta berehala ezagutu zuen; Juan Mari Zendoiaren alargunaren soinekoa zen hura. Gaua bezain iluna zen Maria alargunak kentzen ez zuen soinekoa. Iluna, bakartia... fantasma bat zen Maria, bera eta beste alargun asko eta asko bezala.

Herrian berehala hasi ziren zabaltzen txutxumutxuak hurrengo egunetan. Maria arratsaldean barran ikusi zute-

la esaten zuten batzuek, besteek eroturik zegoela, ikusia zegoela...

\*\*\*

Ezin zuen gehiago; bihotzak, erraiak, erre egiten zioten. Sentitzen zuen, bere seme-alabengatik, amagatik, baina ezin zuen gehiago. Bereko bat zen, eta ondo zekien hori berak, baina ezin zuen gehiago. Azken margarita izango zen goizekoa, ez zion gehiago inoiz besterik jarriko loreontzi mardulean. Sufrimenduak bere zentzuak, bere indarrak agortu zituen jadanik. Esku finekin, aurrepegi azaletik tiratzen zuen bere senar ohiaren hilotzaren aurrean belaunikaturik, malko itsaso baten artean, horrela agian, sufrimendua, ezina, bere gorputzetik aterako balu bezala.

Ordu bat barkamena eskatzen egon eta gero, hilotzari azken muxua eman eta korrika batean atera zen Maria kanposantutik. Inork ez zekien nora, berak bakarrik, eta bere Juan Mari maiteak. Malkoek ez zioten ezer ikusten uzten ia, baina ederki ezagutzen zuen berak barrarako bidea, nahiz eta egun hartatik gehiago ez zen bueltatu, leku hark bere maitea lapurtu baitzion, bere bizitza lapurtu baitzion.

Juan Marirekin elkartu nahi zuen, berriz biok bat izan, berriz maitasunetik edan. Berdin zitzaion zeruan edo infernuan, baina berriz ikusi nahi zuen, sentitu, maitatu...

# Neguko txoria

*Jon Ander Azpiroz*

Urruti geratu zen udaberria; uda ere igarotzeaz zegoen eta udazken haizeak hasiak zeuden indartzen. Jadanik, urte eskas lehenago beix kolorekoak izaki, etxe aldaketarako garaian sabel azpian eraman behar izaten genituen txitatxo haiek, prest zeuden habia utzi eta beraien ibilbideari ekiteko. Hilabete haietan salto txikiak ematetik airean egundoko akrobaziak egin eta bizpahiru segundotan ezkutatzeko kapazak ziren; beharko, ez baitzen oso erraza izaten azeri, katamotz eta heste harraparien artean bizirautea Eskandinabiako harizti luze haietan.

Entzuna nengoen gutariko batzuk abiatu zirela dagoeneko urteroko bidaian, lehenengo haize epelez baliatuz eta pagauso bando andanen hegaldien pean. Gure kintakoak, dagoeneko urte batzuen karga edukirik, bagenekien oraindik jan dezente geneukala inguru haietan, urria aldera etorriko ziren elur fronte gogorrek paisaia zuriz jantzi aurretik. Horrela, bada, itxaron egin genuen urtero moduan, eta lehenengo elurrekin abiatu ginen nire lagun hurkoa eta biok hegoalderanzko urteroko migrazio hartan.

Alemania aldera ailegatzean hasi ginen beste gutarikoekin elkartzeko eta, gure senari jarraituz, bertan pixka bat egon ondoren, abiatuko ginen kontinente beltzerako norantzan, negua han pasa ondoren, ostera gure jaiolekuetara bueltatzeko. Baina hasiak ziren, urtero bezala, bi hankako harraparien harrapaldien kontu hotsak. Gizakiak hasiak zeuden beraien tresna beltz haiek, urte guztian armairuan jasota eduki ostean, berriz atera eta baso lasai haietako isiltasuna tiroz puskatzen. Inguru hauetan, halere, gu baino suerte txarragoa zuten ugaztunek; hemen basurde, orkatz eta oreinen atzetik ibiltzen baitziren gizakiak, egundoko uxaketak eginez; ehizaren aharrusiak beldurtuta, makina bat aldiz alde eginak ginen gure lagun zerbidoak erortzen ziren bitartean.

Kroaziako lehengusuak jada abiatuak omen zirenen kontua ere ailegatu zitzaigun entzumenera, elurra lehenago etorri baitzitzaien eta beste urteetan baino ehiztari gehiago joan baitzen iparraldeko oraindik ez baikeen muga handiaren osteko lurretan bizi arrastorik egin.

Alabaina, egunak aurrera joan ziren eta, hona gure akatsa, behar baino gehiago egon ginen jadanik garai haietarako mantu zuriaren menpe egoten zen lurretan. Urte berriarekin batera etorri zen fronte gogorra; antzara saldoak pasa eta pasa ikusten genituen eta beste hegaberen txilioen ostean abiatu ginen Frantzia aldera. Negu gorria gainean genuen eta hotza nabaritzen genuen gure lumapean. Hemen hartu genuen susto handiena, bandoko lagunek lurreratzea erabaki zutenean. Frantzia osoan nabari zen neguaren eragina, zuri-zuri zegoen dena eta janaria bilatzea oso zaila egiten zen eta aintziretako urak izoztuak zeuden gure adiskide ahate eta istingorren nahigaberako.

Egoera horretan, muga handia aldera gerturatzea erabaki genuen; bai, Pirinioetara abiatu behar genuen. Hemen elurra gatzatzen, lurmentzen hasia zegoen eta gure moko luzeez baliatuz, pare bat egun pasa ahalko genituen, baina urteroko harrapariekin topatu ginen. Ehiztariak mendietan zebiltzan jada. Ailegatu osteko goizean, esnatu zidan zintzarri zaratatsuak hotzikara eragin zidan gorputz osoan. Iaz entzun nuen lehenengo aldiz zintzarri hotsa nigandik hurbil gelditzen, eta beldurturik hegaldatu ostean, gizakiak bere makinaz atera zuen danbatekoak ondoko haritzaren adar erna ondo-ondotik nola moztu zuen ikusi ostean, jakin nuen zer egiteko gai ziren. Harrezkero, soinu hori entzutean, begiak golpean irekitzen zaizkit.

Drahatar arrazako zakur gazte batek zeraman zintzarria eta, oraindik gaztea izaki, hogeit metro harago ezkutaturik zegoen birigarro bati so zegoen, baina gure norantzan. Ongi ikasia zeukan bere betebeharra baina, hegaltia bilatu ostean harria baino geldiago baitzegoen. Lehengo urteko eskapada gogoan eta lagun hurkoa jantoki hobeagoetara eramateko sentitzen nuen behar-rengatik, hegoei arin astindu eta pago artean barna ezkutatu ginen. Pagaditik ateratzean pentsatu nuen nolako izan zitekeen ehiztari hark senti zezakeen poztasuna zakur gazteak gutariko bat markatu eta bota izan bagintu; baina, normala den bezala, guk oraindik bizitzeko gogoz geunden.

Elur kapa handitzen zihoala ikusirik, mendi lerroa igarotzeko asmoa genuen; baina, gure sorpresarako, bes-

taldetik etorri zitzaizkigun gure aurretik abiatu ziren kideak. Ez zen oso gustukoa izan entzun genuena, baina hori zen egoera. Huesca eta Nafarroa osoa zuri omen zegoen eta, iparraldeko hotzera bueltatu ezinik, bide berri bat bilatu beharra zegoen. Gauzak horrela, Pirinioak mendebaldetik pasako genituen. Ohikoa ez zen moduan bando handitan ari ginen biltzen, asko eta askok, gazteak izanik, ez baitzekiten zen egin. Kide zaharretariko batek itsasertzetik kilometro batzuetara zeuden parke naturalen inguruko basoetan lurreratzeko agindua eman zigun gutariko askori; inguru horietan, gainera, ehiztariak edo harrapariak, berak esaten zuen moduan, gehienez aldean gutariko birekin, asko jota hirurekin, ikusten omen ziren

Gizakiek Errege eguna deitzen dioten egunaren biharramanean heldu ginen batzuk; askok, ordea, bidean geratu behar izan zuten bidaia luzearen nekeak jota. Eguraldi ederra zegoen eta herri txiki baten inguruko egutera batean pausatu ginen laguna eta beste hainbat gazte eta ez hain gazte. Eguraldi ederra zegoen eta, zaharrek esandako kontuak lasaituta, aspaldi sentitu ez nuen gustua hartu nien eguneko lehenengo eguzki printzei, gero eta gertuago zetorren negu gorria ahazteraino. Inguru hauetan, gainera, *basoko dama* izenaz deitzen omen digute ehiztari batzuek, baina gehienbat *oilo gor* edo *oilagor* edo horrelako zerbaitez omen gara ezagunak. Baina oilagor deituagatik, segituan entzun nuen, denboraldian bigarren aldiz, hotzikara sortu ohi didan soina. Hemen zetorren berriz ere zakurra zintzarri, lepoko hori eta guzti; baina hau ez zen gaztea, honek lehenago ere bilatuak zituen gutakoak, eta dagoeneko taldeko gazte batek utzitako arrastoan zetorren, goiztirian ni baino 50 metro beherago zegoen erre kara jaitsi zenarenean. Errekaren ondora heltzean, harria bezain gelditu zen zakurra, handik segundo batera bere lepoko horia izugarritzko zarata ateratzen hasi zen, eta segituan azaldu zen ehiztaria. Kide gaztea, bere gaztetasunaz harro, bere hegalez fidatuz hegaldatu zen. Bi metroko altura hartu baino lehen entzun zen tiro hotza, laguna orbelezko hilkutxan zerraldo geldituz. Min egin zidan, normala den bezala, baina segituan jabetu nintzen errealtatearen gordinaz: urtero moduan, ohi bezala bidean geratzen baitziren gure ahaide asko. Zorte onak irribarre egin zigun, ordea, kanidoa bere ehiza hartzera zihoan momentuan, orkatz bat saltatu zen aurreko sasiartetik, eta spaniel-a, zaunka txikiak eginez, bere atzetik eraman zuen beste baso batera.

Ehiztariak alde egin behar izan zuen, baina tiro hotsak gero eta sarriagoak ziren inguru haietan ehiztariak, bana-bana joan partez, taldetxoetan ikusten genituen basoetara sartzen ez dakit zenbat zakurrekin. Gutariko zenbat ari ote ziren beraien moko luzeak, beraien hego finak azken aldiz mugitzen. Arratsaldean hegazti saldo andana pasa zen, frankolin, hegabera eta kuliskak tarteko. Gehienak tiroz agurtuak izan ziren; denek ez zuten zorte berdina izan, halere.

Iluntzea heldu zen eta baita elurra ere, eta horrekin batera atzean gelditu ziren askok ilun bistako iluntasuna aprobe txatuko zuten ikusi gabeak izango zirelakoan. Baina usteak erdia ustel. Zorigaitzekoak haiek! Goizean tiro gutxi izan ez bazen, ilunabar hartakoa zer ote zen. Frantzian egiten zituzten eper eta faisaien uxaldiak etorri zitzaizkidan burura, atzetik tiroak uxatzeko eta aurretik tiroak eraisteko, alde guztietan entzuten ziren tiroak, eta gutariko asko ikusi nituen erortzen, nahiz banaka, nahiz bikoteka, nahiz taldeka, asko amildu zinen jadanik itsasten hasia zegoen elurraren gainean. Egoera ikusirik lagun minak eta bide lagunek inguruko pagadiren batean hazkatu eta osterazkuta-leku berdineraz itzultzea erabaki genuen, egun hartan ez baitzegoen basotik kanpora ateratzerik. Gauean argi asko ikusten ziren zelaietan eta tiroak noski ez ziren amaitu, ezkutuko ehiztariak indarrrik gabe zerbait jatera atera ziren *pikoluzek* botatzen zebiltzan; tiroak isiltzean, orbelaren beroarekin hartu nuen lo. Hurrengo egunean tiro hotsez esnatu nintzen. Oso gertu entzun nituen eta ez bat edo bi. Ez, gutxienez zortziko tiro sortak izan ziren bide lagun bik beraien hegaldian atzetik entzun zituztenak. Hirugarrenak ez zuen zorte handia izan. Ehiztariak taldeka zebiltzan, deiadarka, garrasika aurrean zintzarri zarata mingarria ateratzen zuten hainbat eta hainbat zakurrarekin.

Bat-batean, ordea, lagun mina falta nuela ikusi nuen. Ez zegoen nire ondoan, eta azkena eraitsi zuten hark eme itxura zuen. Bi aldiz pentsatu gahe eragin nien hegoei, baita bi tiro hots entzun ere, ehiztariaren amorraziorako pinuen enborretan jo zutenak. Beste ehiztariak ez zuten apuntatzeko aukerarik ere izan nik egin nituen akrobaziekin. Istant hura aukeratu nuen erail berria zen kideari begiratzeko, eta nire bihotzaren zorionerako ez zen bera. Baina aldi hartan, ailegatzerakoan zaharrak esan zigun kontuarekin gogoratu nintzen, gezurti alaena, gizaki haietako batek bost lagun baitzeramatzan aldean eta besteak beste lau. Negar malkoei eutsi

ezinik ez nuen besteei begiratzeko adorerik izan eta, konturatzerako, bart gauean bazkatu genuen pagadian kausitu nintzen. Han zegoen nire maitea, arnasestuka ordurako, bi aldiz aldatu behar izan baitzuen tokiz. Elkarri begira jarriarik, bere atzetik zetozela jakinarazi zidan, eta nik, kontsolatu nahian, lasai egoteko agindu nion, aurten ere alde egingo genuela eta. Konturatzerako, gainean genituen, ordea, ehizorak. Setter ingeles arrazako hi zakur ziren, bat udan zuhaitzak baino geldiago zegoen eta besteak, izkina eginez, errekarako bidea moztu zigun. Bi morrosko hauek gure espeziekoak bakarrik bilatzen zituzten, ez nuen asmatuko gutariko zenbat pasa ziren haien begietan, ez eta gutariko zenbat eraman zizkion bere nagusiari. Pentsatze hutsak odola izozten zidan. Laster ailegatu ziren harrapariak ere eta, aita-emeak irudi, zaharrenak aholku bat eman zion gazteenari. Orduan, nire jaiolekuaz gogoratu nintzen, nola nik ere nire txitatxoei aholkuak ematen nizkien zizare eta larbak harrapatzeko, eta, nolabait, barrua lasaitu zidan sentipen hark. Ez denbora askorako, ordea; lagun mina hegaldatu zen, eta baita ni ere, nabaritu nituen zakurrak mugitzen, eta baita ehiztariak ere beraien instrumentu beltzak gugana zuzentzen. *Oraingoan, bai seme!* oihukatu zion batak besteari, eta tiroka hasi ziren. Lehengo saihestu nuen, bigarrenak pago baten adarrean jo zuen, hirugarrena gainetik pasa zitzaidan eta laugarrena urrun gelditu zen nigandik. Baina ziztada bat sentitu nuen ene barnean, eta ingurura begiratu nuen: maitea falta zitzaidan! Begiratu nuen sortaldera eta begiratu nuen sartaldera. Ezer ez, Begiratu nuen iparrera,

baita hegora ere, eta ez nuen ikusten. Burua jaistean ikusi nuen nola ari zen erortzen, nola zitzaizkion hegoak gelditzen, nola ari zen bere azken hegaldia bukatzen. Beste bi tiro entzun nituen, eta batek hankan ukitu zidan, eta maitearen ondora erori nintzen. Ez, ordea, hankako urratuarengatik, barneko minarengatik baidzik. Hila zegoen ni jaisterako, egina zuen azken hegaldia, eta norberari tokatzen zaionean mila aldiz gogorragoa bada ere, negar malkoak isuriz onartu nuen aurten niri tokatu zitzaidala maitea galtzea. Indar apurrekin ikusi nuen ondoan nuen ehiztari gaztea eta honek, bizirik ikusi arren, hain lur jota, hain babesgabe ikusirik, ihes egiten utzi zidan, erabat hunkituta geldituz. Ondoren, oihu egin zion gurasoak ea zergatik egin zuen galdetuz, eta honek honela erantzun zion: *Aita, tiro batean bat eta bestearen erdia bota ditugu*. Aldi batez nahiago izan nuen, maitearen ondoan egin nuen hegaldi hura niretzako ere azkena izatea, baina biziak aurrera joan behar zuen eta ez dakit zenbatgarrena nuen hegaldi hartan ehiztari gehiago ikusi nuen, gutarikoak beterik gerriak, eta orduan ohartu nintzen zaharrak esandakoak bere egia bazuela. Zaharrak gehienez aldean gutariko hiru ikusi omen zituela eramaten, baina jakina da harraparia beti izan dela harrapari eta, ahal badu, beti badaezpada ere beste bat gehiago harrapatuko duela. Nik ere nahikoa izaten baitut pare bat zizarerekin gaua pasatzeko, baina gehiago badago gehiago jaten ditut.

# Enara

## Josu Galdos

1

Enara Auñamendiko inguruetan bizi zen dela urte asko eta asko, duela milaka urte. Gizatalde baten babesean bizi zen kobazulo eder batean.

Gizon-emakume hauen bizitza nahiko gogorra zen, batez ere neguan, baina oso gustura bizi ziren. Azkenaldian, gainera, ehizarekin oso ongi moldatzen ari ziren, eta hori dela eta ez ziren ez batere goserik pasatzen ari.

Egia esan, gizaki hauek Naturarekin oso harreman estua zeukaten, berarekin bat sentitzen ziren. Beraiek ondo baino hobeto bazekiten bazela zerbait edo norbait dena elkar lotzen zuena, dena maisuki mugitzen zuena, azken finean, dena osotasun batean biltzen zuena bere baitan. Eta zer edo nor horri Mari deitzen zioten.

2

Uda amaitzen ari zen, eta Enara sagar batzuk biltzen ari zen. Sagan gorri eder-eder bat ikusi zuen bere oin baten ondoan, eta makurtu eta sagarra hartzear zegoenean, Enarak zerbait berezia sumatu zuen sabelaldean, ez zuen inoiz holakorik sentitu, baina aldi berean sentazio ezaguna egiten zitzaion, eta, gainera, bere barrubarruan poz izugarri bat sortarazten zion. Orduan etorri zitzaion burura:

—Haurdun nago!

Enara oso pozik jarri zen, ez baitzuen oraindik haurrik izan, eta egia esan, bat izateko irrikatan zegoen. Enarak Mariri eskerrak eman zizkion bere sabela ukitzen zuen bitartean, eta Haritzari berria emateko gogo handia zuenez, oraindik lurrean zegoen sagar gorri ederra otarrean sartu eta kobazulorantz abiatu zen. Egun polita egiten zuen eta Enara pozez zorutzen zegoen.

—Enara! —entzun zuen bat batean—. Haritza zen, eta nahiko urduri zetorren.

—Zer gertatzen da? —galdetu zion Enarak.

—Begi-Ilunek denak kobazuloan biltzeko esan du, zerbait gertatuko denaren susmoa omen dauka.

—Baina zer? —Enarak gehiago jakin nahi zuen, baina Haritzak ez zekien ezer gehiago.

Eta kobazulora itzuli ziren isil-isilik. Enarak berri pozgarria eman nahi zion aita izan behar zuenari, bai-

na azken ezusteko horren zergatia argitu arte itxarotea erabaki zuen.

Kobazulora iritsi zirenean, Haritza, Enara eta biak bizi ziren txokoan etzan zen, eta Enara, berriz, otarra lurrean utzi ostean, Sustraiarengana joan zen. Sustrai, taldeko amona zaharrena zen, oso jakintsua zen, eta Enararen birramona ere bazen. Enara askotan joaten zen harengana laguntza eske edota kezka edo arazoren bat zuenean.

—Amona, zer gertatzen da? —galdetu zion.

—Ez dakit, ttiki, baina zerbait bai. Ortzian, lurrean, hegazti eta animalietan, denean zeozer sumatzen dut; usain berezi bat bezalakoa da, baina ez dakit zer den...

—Eta Begi-Ilun? —Enarak.

—Begi-Ilun haritz zaharrera joan da, ea Marik zer esaten dion. Nik uste hark erantzunen bat ekarriko digula.

Enara oso pentsakor gelditu zen, Begi-Ilun oso gutxitan joaten baitzen haritz zaharrera. Egoera zailetan edo erabaki garrantzitsuren bat hartzeko uneetan bakarrik. Enarak oraindik gogoan zuen nola joan zen azkeneko aldiz, hiru bat negu igaroko ziren honezkeror. Gosete izugarria pasatzen ari ziren garai hartan, baina Begi-Ilunek haritz zaharretik etorri eta gero, jakin izan zuen nondik jo janaria aurkitzeko.

—Beno, amona, banoa! —esan zuen azkenean.

—Segi bai ttiki, eta ongi zaindu zure haurtxoa!

—Amona? Baina nola da...? —baina Enara isildu egin zen, bere amona inor konturatzen ez zen gauzez konturatzen baitzen eta, egia esan, ez zen, ez, hain harritzekoa bere haurdunaldia sumatzea. Eta isil-isilik amonagana hurbildu eta besarkada bat eman eta gero, bere txokora joan zen.

3

Gizatalde osoa kobazuloan sartuta zegoen, eta egun hura oso luzea egin zitzaion, eta gaua etorri zen, baina Begi-Ilun ez zen itzuli. Enarak ia gau osoa esna igaro zuen izarrei begira eta buruari eragiten Mariri zerbait entzun nahian, baina ez zuen, ez, inongo erantzunik aurkitu.



Hurrengo egunean ere Begi-Ilun ez zen etorri, eta denak urduri jartzen hasi ziren.

—Lasai, lasai, gertatu beharrekoa gertatuko da —esaten zuen goxo-goxo Sustraiak.

Baina denek Begi-Ilunen berriak jakin nahi zituzten. Zer gertatzen zen, ba?

Enarak, bestalde, bere berri ona aineratu nahi zuen. Haurtxoari ongietorria emateko jaia prestatzen hasi nahi zuen, hala egiteko ohitura baitzeukaten emakume bat haurdun gelditzen zen bakoitzean. Dena argitzea nahi zuen behingoz, baina Begi-Ilun ez zen itzultzen.

Begi-Ilun taldeko sorginik jakintsuena zen. Mari-  
ren mezu ezkutua oso erraz entzuten zituen, eta beti bazekien zer zen onena denentzat. Norbait noizbait gaitxotu edo kezka bat zuenean, Begi-Ilunek, segituan asmatzen zuen zer gertatzen ari zitzaion gaixo hari edo arazoak zituen hari eta, Mariaren bidez, denei bidea aurkitzen laguntzen zien.

#### 4

Eta, azkenean, eguzkia sartzen ari zenean, Hauxka izeneko mutil bizkor batek, Begi-Ilun bazetorrela oihukatu zuen:

—Badator! Badator!

Hala zen, bai. Begi-Ilun, poliki-poliki zetorren, burua tente eta irribarrea ahoan, geratzen zitzaizkion hortz apurrak erakutsiz, izan ere, hau ere oso zahartuta zegoen. Kobazuloan sartu zenean, denak isil-isil eta adi-adi gelditu ziren bere hitzak entzuteko zain. Begi-Ilunek eguzkia ezkutatu arte itxaron zuen, eta behin mendi atzean guztiz gorde zenean, bere adiskideengana zuzendu zen. Denak bere inguruan eseri ziren, haren hitzak entzuteko prest.

Bat-batean, Begi-Ilun oso serio jarri zen. Lehendabizi, Sustraiari begiratu zion, baimena eskatuz bezala, eta honek buru keinu batekin baietz esan zion, hitz egiteko. Eta orduan, azkenean, Begi-Ilunek zerbait esan zuen, inork espero ez zuen zerbait, Sustraiak izan ezik, honek horrelako zerbait espero baitzuen.

—Lurrikara! —esan zuen.

—Lurrikara! —oihukatu zuten denek. Ezin zuten sinistu, ez zuten horrelakorik espero. Zumar, mutil gazte bat, zutitu eta esan zuen:

—Begi-Ilun, ziur al zaude?

—Bai, ziur nago.

—Orduan, alde egin beharko dugu.

—Ez, beranduegi da, eta lurrikara izugarria izango

da. Ez dugu ihesbiderik.

Denak isil-isilik gelditu ziren. Ez zuten horrelakorik espero. Lurrikarak heriotza esan nahi zuen, ttikitatik entzun zituzten lurrikarei buruzko kontaktuzun lazgarriak, nahiz eta taldeko inork ez zuen inoiz bat bera ere bere larrutan pairatu.

Denbora luzez egon ziren denak isil-isilik, lur jota. Ematen zuen zaharrenak pixka bat lasaiago zeudela, baina gazteetan nabaria zen sentitzen zuten ezinegona. Oso indartsu sentitzen ziren oraindik, eta ez zuten hiltzeko batere gogorik. Batzuk oso haserre zeuden Mariarekin, ez zuten ezer ulertzen.

Isilunearen ostean, Begi-Ilunek hartu zuen berriro hitza, baina ez zen, ez, betiko Begi-Ilun, betiko Begi-Ilun indartsu eta bizkorra; bat-batean, oso zahartuta agertu zen, oso makal, eta gutxitan bezala, begitatik malkoak isurtzen zitzaizkion. Sorgin handia amona zahar bihurtu zen, nahiz eta begiek ilun-ilun eta misterioitsuak izaten jarraitzen zuten, bere barne indar izugarria erakutsiz.

—Mari misterio bat da, misterio handi-handi bat. Nik ez dut lurrikara honen zergatia ulertzen, baina ez ahaztu Mari ez dela inoiz gutaz ahaztuko, gu ere Mari baikara, nahiz eta batzuetan ez hala iruditu. Eta gogoratu heriotza ez dela bukaera, aldaketa bat besterik ez da; Mari ezagutzeko bidean, denok egin behar dugun aldaketa.

Begi-Ilun eseri egin zen, oso nekatuta zegoen, eta hizketan jarraitu zuen.

—Haritz handian amets bat izan dut. Lurrikara ikusi dut, tristura ikusi dut, samina ikusi dut, eta gero, dena zen iluntasuna, iluntasun mingarria. Baina, halako batean, iluntasunaren erdian, argitxo bat ikusi dut, oso ttikia hasieran, baina gero poliki-poliki handitzen hasi da. Orduan, samintasuna lasaitasun bihurtu da, eta iluntasunak eta argiak nigan bat egin dute. Amets ederra izan da.

Begi-Ilunek begiak itxi zituen, eta arnasa sakon hartu zuen. Batzuk negarrez hasi ziren, Begi-Ilunen ametsa taldeko haur, emakume, gizon, agure eta den-denek beraien ametsa izan balitz bezala ikusi zuten beraien baitan. Haur ttikienek ere, gertatzen zen guztia oso ongi ulertzen zuten, eta sendotasun ikaragarria erakusten ari ziren.

Sorgin zaharrak hizketan jarraitu zuen:

—Orain une gogorak pasa beharko ditugu, iluntasuna laster da gure gainean, baina argia ere etorriko da.

Ama lurrak gure gorputzak eskatu ditu, eta gure gogoek berriz Marirengana itzuli behar dute, bizitza eta heriotzaren gainetik.

5

Gauerdia zen, hotza egiten zuen, eta Zumar zutitu eta sua pizten hasi zen. Denak berarekin altxa ziren eta batzuk sua egiten lagundu zioten. Suak indarra hartu zuenean, denak bere inguruan eseri ziren, suaren epelean.

Pixkanaka-pixkanaka urrutian hots ezezagun batzuk entzuten hasi ziren; gero, hots horiek gero eta ozenago entzuten ziren, baina hala ere inork ez zuen ezer esan.

Enara Haritzaren eta amona Sustraiaren erdian eseri zen. Ikaratuta zegoen, nahiz eta Mari bere barruan sentitu. Eta triste zegoen, oso triste, batez ere bere haurra ez zelako jaioko.

Enarak Haritzaren eskua hartu zuen; begietara begiratu zion, eta eskua bere sabelean ipini zion. Haritzak, orduan, ezin izan zion negarrari eutsi, eta Enararen besoe-tara erori zen.

Eta, orduan, lurra bitan zatitu zen, eta kobazuloa gainera erori zitzaien. Enarak begiak itxi zituen, Haritzaren eta amonaren eskuak indarrez heltzen zituen. Izugarrizko orroak entzuten ziren, eta Enarak erortzen ari zela sentitu zuen. Haritzaren eta amonaren eskuak galdu zituen; bakarrik zegoen. Harrikada izugarriak jasotzen ari zen, baina ez zuen minik sentitzen, gorputzetik kanpo bezala sentitzen zen, eta orro, kolpe eta iluntasun haren erdian argitxo txuri-txuri bat ikusi zuen. Enara, orduan, asko lasaitu zen, eta bere bizitza maitea eta bere ttikiarena Mariri eskaini zizkion.

—Mari, Mari, Mari! Zure argia ikusten dut... —eta, azkenerako, burua galdu zuen.

6

Hotz handia egiten zuen. Enarak begiak ireki zituen, eta izarrak ikusi zituen; min handia zuen, batez ere buruan. Pixkanaka-pixkanaka gertatutakoaz oroitu zen eta ahal bezala zutik jarri zen. Bera zegoen lekutik pauso batera zulo izugarri bat ikusi zuen, ilargiaren argitasunari esker. Enara berriz eseri zen, bere burua argitu nahian.

—Ez nago hilda! —hasieran Enarak poza sentitu zuen, bizi-poza, eta segituan besteei deika hasi zen:

—Haritza! Amona! Begi-Ilun!

Baina inork ez zuen erantzuten, den-denak lurrak irentsi zituen. Orduan, Enarak hilda egotea desiratu

zuen eta, une batez, zulora jauzi egiteko zorian egon zen, baina azkenerako ez zen ausartu. Zerura begiratu eta oihuka hasi zen:

—Mariiii! Nitaz ahaztu al zara? Nola utzi nauzu hemen bakarrik! Ez dizut ulertzen!

Enara denbora luzez egon zen oihuka eta garrasika, erantzun baten zain. Zergatik ez zegoen hilda? Zer egin behar zuen berak bakarrik? Oso bakarrik sentitzen zen iluntasun haren erdian eta, indarririk gabe gelditu zenean, oihukatzeari utzi eta bere sabela besarkatuz, negarrez hasi zen.

Bakarrik zegoen, oso bakarrik, eta triste, oso triste. *Mari, non zaude?* galdetzen zuen ahotsik gabe eta begiak itxita. Azkenerako, loak hartu zuen.

7

Eguneko lehen eguzki izpiekin esnatu zen, eztarrarian oraindik tristuraren korapilo mingarria sentitzen zuelarik. Eta belarraren hezetasuna sentitu zuen, eta baita eguzkiaren berotasuna ere. Gora begiratu eta esan zuen:

—Ezin zaitut gorrotatu. Ez zaitut ulertzen, baina badakit hor zaudela.

Eta oraindik zerura begira, oihu izugarri bat bota zuen; tristuraren oihua, haserrearen oihua, ulermen ezaren oihua, baina baita ere bizi nahiaren oihua.

Lasaitu zenean, ibiltzen hasi zen, bere gorputza berotu nahi zuen, eta zulo eta inguru haietatik aldendu nahi zuen. Han ez zegoen jada bere kobazulo maitea, ez eta berak hainbeste maite zituen zelai eta basoak. Dena zen txikizioa, zuhaitz eta landare bakan batzuk kenduta, beste dena harri, zulo eta zuhaitz eroriz beteta zegoen. Ez zuen inoren gorpurik ikusi, baina berak bazekien denak zulo handi hartan zeudela.

Eta aldentzen ari zelarik, zerbait ikusi zuen, berak ondo ezagutzen zuen zerbait.

—Nire otarra da, eta sagarrez beteta dago oraindik! Enarak ezin zuen sinistu, baina egia zen, bai: bere otarra oso-osorik zegoen eta sagarrez beteta. Enarak otarretik sagar bat hartu zuen, eta segituan ezagutu zuen sagar gorri eder-eder hura. Sagar hura lehen aldiz ikusi zuen une hartaz gogoratu zen...

Eta jan egin zuen. Oso goxoa zegoen, eta gero beste bat jan zuen, eta gero beste bat. Gose handia zeukan, bizitza bera jan behar zuela zirudien. Ezin zen ase, eta otarreko sagar denak jan zituenean, bere sabela maitekiro-maitekiro laztanduz esan zuen malko artean:

—Zure izena Argia izango da, iluntasuneko argia.

# Mistrinaut

Iker Lizaso

1

Rafoxek bazekien, bai, ez zuela ondo egin, baina ez zuen sinesten bere erregeak esan ziona. Haren hitzak gogoratzen zituenean, haserre bizian jartzen zen:

—Zoaz! Nire erreinuaren izen ona zikindu duzu, eta horrek konponbide bakarra du, eta zuk ezagutzen duzu —erreinutik bidali zuen.

Oraindik ez zuen sinestu nahi esan ziona.

Berak bazekien nora joan, bere ezpata eta diru pixka bat hartu zuen, eta erreinutik atera zen bizitzan lehen aldiz. Orain, argi zuen nora jo, baina zoritxarrez ez zekien nola, ez baitzuen Dagonaut erreinurako bidea ezagutzen; behintzat, bazekien hegoaldera zegoela eta harantz abiatu zen.

Bideari ekin zion, Garwen bere zaldiaren gainean. Hasieran, hegoaldera bakarrik, argi ikusten ziren bideetatik. Baina, goiza igaro eta arratsaldea iritsi zenean, bazterrean zegoen jendeari galdetu zion ea zein zen Dagonautera joateko biderik azkarrena, eta hauek bere ezpata ikusita berehala ezagutu zuten, arma ezaguna baitzen erreinu guztian, besteetatik desberdina: orri beltza zuen, eta gaizto bati sartzen zionean ez zen odolez zikintzen, belztu baizik.

Langile haiek esandako bideari jarraituz, berehala iritsi zen mendikatearen itzaletara.

Oraindik ez zen gaua, baina zalduna, badaezpada ere gaua igarotzeko ostatu bat bilatzen hasi zen. Aldameneko herri txiki batean aurkitu zuen. Sekulako zaparrada hasi zuen, eta bertan sartu zenean ez zuen zaldun itxurarik: arropa bustirik, ile gorria ere mela-mela egin da aurpegian itsatsita eta bizarra tantoka. Ostalaria, beldurtu egin zen bidaiariaren itxuragatik; baina, ezpata ikusi zuenean, beldur guztiak joan zitzaizkion, eta berehana abiatu zen agurra ematera.

—Gaua hemen igaro dezaket? —galdetu zion tabernariari.

—Ordaintzeko dirurik badaukazu? —galdetu zuen hark, erdi txantxetan erdi serio, eta Rafoxek poltsatxoak erakutsi zion. Ostalariak irribarre zoriontsu bat erakutsi zuen.

Zerbait afaldu zuen eta berehala ohera abiatu zen, nekatuta baitzegoen igaro zuen eguna eta gero.

Hurrengo goizean, atsedean hartuta zegoela, ostalariarekin hitz egin zuen:

—Mendia zaldian igaro al dezaket? —galdetu zion.

—Bai, baina bide hori hemendik pare bat egunetara dago, ekialdera. Bestela, zaldia hemen utzi dezakezu eta itzultzen zarenean berriro zeureganatu -esan zion ostalariak.

—Zutaz fida naiteke? —galdetu zion. Nahiz eta berak bazekien ez zela berriro itzuliko, eta tristura sortzen zion bihotzean Garwen bidean uzteak, ez zituen beste bi egun igaro nahi, handik bidali zuen errege baten erreinuan-. Pare bat aste igarotakoan etorriko naiz zaldiaren bila. Ostalariak mendiko bota batzuk utzi zituzkion, eta berehala abiatu zen, Dagonaut erreinutik banatzen zuen azken oztopoa gainditzera.

Berarentzat zorte ona izan zen horrelako eguraldia egitea, eta ia ez zen nekatu goraka zihoan bidean. Mendi tontorrera iritsi zenean gaua zen, eta lurtean lo pixka bat egin zuen suaren alboan, goxo-goxo.

Hurrengo goizean, pixka bat lainotuta irten zen egun-sentia, eta Rafoxek pixka bat itxarotea erabaki zuen, ea lainoa joaten zen, oso erraza baitzen bestela galtzea. Gainera, hotza ere egiten zuen, eta berriro piztu zuen gaueko sua. Ordubete igaro ondoren, gehiago ikusten zen, eta eguzkia lainoen atzean ageri zen.

Beheraka abiatu zen. Bidean gazte batekin topatzeko zortea izan zuen, eta harekin hitz egiten igaro zuen beherako bide osoa. Mendia erraza zen jaisteko eta ez zuen horren adi egon behar bidean, eta Dagonaut erreinuarengatik galdetu zion:

—Erreinu polita da, zaldun asko daude: Ristridin, Tiuri eta beste asko. Nire erreinua da, eta maite dut.

—Zein da gertuen dagoen gaztelua? —galdetu zuen ondoren.

—Mistrinaut -esan zion, ahotsa pixka bat aldatuta.

—Gaur gauerako iritsiko al naiz?

—Ez duzu pentsatuko hor gaua igarotzea ezta? —galdetu zion erdi izututa.

—Bai, hori da neure plana. Zergatik galdetzen duzu?

—Istorio beldurgarriak entzun ditut. Esaten duteenez, gaztelu horretan jaun gogaikarri bat bizi da, eta

jendea, hasieran esplotatu, gero torturatu eta, ondoren, hiltzen uzten omen du. Arrazoirik gabe.

—Ez dut uste hori egia izango denik —esan zuen harrituta Rafoxe. Eta, nahiz eta horrelako istorioak edozein pertsonari ez joateko esan, berari gogo gehiago jarri zizkion.

—Kontuz ibili beharko dut orduan —bukatu zuen irribarrez.

Arratsaldea iritsi zenean, Rafox eta gaztearen bideak banandu egin ziren: bat Mistrinautera eta bestea handik urrun.

## 2

Mendizaleak esan zion beste egun bat beharko zuela gutxienez gaztelura iristeko, oinez behintzat, baina bide erdian ba omen zegoen ostatu bat, eta horrelako ezpata zeraman edozeini seguruenik zaldi bat utziko ziotela. Hark eman zizkion azalpenekin afalordurako bertan zen. Ostalariak jatorra ematen zuen.

—Zer nahiko zenuke afaltzeko —galdetu zion, adeitasunez, baina bista ezpatara erortzen uzten zuelarik.

—Ez dakit. Nahi duzuna, baina beroa egotea behintzat; kanpoan hotz egiten du.

—Ongi da. Gaua hemen igaroko duzu, ezta?

—Eskertuko nuke. Eta bihar zaldi bat ondo etorriko litzaidake... Ez dakit, esan didate hemen bazeudela.

—Oraintxe, egia esan, bi bakarrik dauzkat. Bat oso azkarra da. Nahi baduzu, har dezakezu, nik orain ez dut behar eta. Baina ondo etorriko litzaidake itzuliko bazezidake.

—Noski!

Ostalaria sukaldera joan zen eta hamar minututan haragia ekarri zion Rafoxi afaltzeko.

Hurrengo goizean azkar jaiki zen, ez baitzuen denborarik galdu nahi. Bazkalordurako iritsi nahi zuen Mistrinautera, eta zaldia jabeak zioen bezain azkarra bazen, lortuko zuen. Ostalariak animalia prest zuen abiatzeko.

—Mila esker zaldiarengatik —esan zion adeitasunez eta irribarrez Rafoxe.

—Ez da ezer, kontuz ibili Mistrinauten! Ezagutzen dituzu istorioak. Nik ez dakit noraino diren egiazkoak, baina ni behintzat kontuz ibiliko nintzake —eta ziztu bizian alde egin zuen, bere kapa atzean zuela hegan.

Bi ordu igaro zirenean, berriz, zaldia galocean jarri zuen eta, ostalariaren azalpenekin, bazkalordurako iri-

tsi zen Mistrinautera, bi ordutan.

Gazteluak, Rafoxen ustetan, entzundako istorioentzat aproposa ematen zuen. Handia zen, oso handia, eta baita oso iluna ere. Horren iluna zen, berari iruditu zitzaiola gauean iritsiz gero, zerurik ez zuela nabarmenduko. Ate handia jaitsita zegoen, eta bi guardia ikusi zituen hura babesten, bana alde bakoitzean. Egurrezko zubitik igaro zen eta guardiei egun onak eman zizkien. Haiak ez zuten ezer esan. Eskuinean zegoenari hitz egin zion:

—Zure jauna ikusi dezaket? —galdetu zion edukazio guztiarekin.

—Zertarako? —itzuli zion guardiak zakarki.

—Gaua hemen igaro dezakedan jakin nahiko nuke —Rafoxe bere tonua ez zuen aldatu.

—Horretarako ez da Viridian jaunarekin hitz egin behar. Baina erantzuna baietz da, eta bazkaldu ere egin dezakezu, nahi baduzu —esan zuen bere tonua ematen zuenarekin-. Nahikoa toki badago.

Rafoxe asko eskertu zuen “gonbidapena”, eta ez zitzaion asko kostatu entzundako istorioak sinesten hastea. Zaldia ezkerreko guardiari utzi zion eta jangelara abiatu zen. Bazkari on bat hartu zuen. Nahiko harrituta geratu zuen, ia inor ez baitzegoen jangela erraldoian: hamar bat zerbitzari bakarrik zeuden bazkaltzen eta mahai handian, hau da, gazteluko jaunaren mahaian, inor ez. Gehien horrek harritu zuen, normalean gazteluetako jaunek denekin batera bazkaltzen baitzuten.

Arratsaldea besterik gabe igaro zen, eta afalorduan ikusi zuen lehenengo aldiz Mistrinauteko jauna, Viridian. Ez zuen zakarra ematen eta gutxiago torturatzaileria, irribarre zintzo bat baitzuen ahoan. Alboan, neska eder bat zegoen. Ez zekien zein zen, baina oso ederra zen; ile beltza zuen, nahiko luzea eta begiak ere ilunak zituen.

Afaria bukatu zenean, jauna Rafoxeekin hitz egitera joan zen. Gertutik, bere itxura zertxobait aldatzen zen, aurpegia, izan ere, markaz beteta zuen.

—Gabon! Rafox, ezta? —galdetu zion irribarrez.

—Bai —esan zuen motz, baina adeitasunez burua makurtuz.

—Espero dut ondo afaldu izana —hasi zen—. Bihar ere hemen igaroko duzu eguna, ezta?

—Ahal badut, behintzat, bai. Oraingo ez dakit nora jo, berria bainaiz zure erreinu honetan.

—Nahi duzun bezala. Behar duzun denbora guztia igaro dezakezu hemen. Ikusten duzun bezala, ez da jen-

de asko etortzen erreinuko alde honetara. Ez dakit zergatik —Rafoxi iruditu zitzaion jauna bere ezpata beltzari begira geratzen zela segundo batzuk eta honek gerrikoari buelta eman zion, zertxobait ezkutatzeke—. Nire alaba aurkeztu nahi nizuke.

—Davinia! —deitu zion, eta Rafoxi ederra iruditu zitzaion neka etorri zen.

—Hau Rafox da —esan zuen irribarrea galde gabe.

Rafoxek eskua hartu eta ezpaineekin gaina igurtzi zion. Neskaren begiek dirdira berezia zuten, eta liluratuturik utzi zuen. Pixka bat egon ziren hizketan, baina ez zuten gauza garrantzitsurik aipatu. Gero ohera joan ziren denak, baita Rafox ere.

Rafoxek begi berdeak itxita zituen, lo zegoen; gela nahiko iluna zen, su txiki bat bakarrik baitzegoen piztuta, mahai baten alboan, baina mahai bat baino gehiago zeuden. Harrizko mahai handi haien gainean, Rafoxi gorpuak zeudela iruditu zitzaion; pixka bat hurbildu zen, eta bururik gabeko gorpuak ikusi zituen su goibelaren argipean.

Begiak ireki zituen. Izerdi patsetan zegoen. Leihotik ilargia ikusten zuen eta burua bueltaka zuen. Burkoan erortzen utzi zuen, arnasa sakon hartu eta berriro lo hartzen saiatu zen. Lortu zuenean, berriro ere amets berbera izan zuen, baina oraingoan gehiago sartu zen, eta Viridian zaldunaren barrea ezagutu zuen. Beldurra ematen zuen. Gero, dena beltza.

Berriro esnatu zen, baina oraingoan eguna iritsita zegoen, eta segituan gosaltzera abiatu zen. Goiz guztian ez zuen gazteluko jauna ikusi. Bai, ordea, bere alaba: mahai handian zegoen gosaritan, bakarrik. Eguna aparteko gertakaririk gabe igaro zen.

Mahai bakoitzaren gainean gorpu bat zegoen. Dena oso ilun zegoen, eta Viridian jauna barrez ari zen, makila baten ondoan. Rafoxek eskuak begiratu zizkion: ezpata guztia odolez zuen, oraintxe norbait hil balu bezala. Orduan, jauna beste gela batera sartu zen eta, denbora pixka batera, sekulako garrasi beldurgarria entzun zen paretaren beste aldetik.

Ile gorria, berriro ere, izerditan blai eginda zuen. Garrasia entzun zuen berriz ere; ez zekien egiatan entzun zuen, edo imajinazioaren joko zikin bat zen.

Hurrengo bazkalorduan jauna mahaian zegoen, baina Rafoxek baino lehenago bukatu zuen eta egurrezko ate handitik igaro zen gazteluaren sarrerako gelara. Ate handia ez zuenez itxi, beste ate batetik sartzen zela ikusterira iritsi zen, ate hark behera zihoazen eskailera batzuk

zituen barruan.

Bazkaldu ondoren Rafox bere gelara joan zen. Han lo-kuluxka bat bota zuen, azken gauetan ez baitzuen lo ondo egitea lortu. Lortu ez zuen arren, ohe gainean zegoela, garrasi berberak entzuten jarraitzen zuen, ikaragarri ozen eta garbi.

Afalordua iritsi baino lehenago, zerbitzari bat etorri zitzaion, Daviniak berarekin hitz egin nahi zuela esanez.

—Gabon, Rafox! Zurekin hitz egin nahiko nuke —esan zion Daviniak irribarrez, baina beldurra sumatu zion Rafoxek ahotsean

—Nola ez.

—Hemendik alde egin behar duzu, ahal duzun, azkarraren —esan zion belarrira, inork entzutea nahi ez balu bezala.

—Zergatik? —galdetu zion harrituta, baina damaren tonu berean.

—Ezin dizut esan; aitarengatik da... Ezin dizut esan.

—Zergatik? Txarra al da? —galdetu zuen izuturik, entzundako istorioekin lotu baitzuen.

—Nire aitak... ez... luke jaun bezala... jarraitu behar ko.

—Ez dut ulertzen —esan zuen, baina zerbait bazekien.

—Nahiago dut zuk ez ulertzea —eta joan egin zen Rafox oso arraro sentitu zen, ez zekien ulertu zuen edo ez.

Gauean, lo zegoela, soinu arraro batek esnatu zuen. Berehala jaiki zen. Bazekien hura ez zela amets bat. Jaiki egin zen, eta iluntasunean ezpata bilatzen hasi zen, soinua zetorren tokira begira, hau da, paretara begira; baina gehien harritu zuena paretak egon behar zuen tokian argi txiki bat ikustea izan zen. Ezpatari heldu zionean, harengana joan zen isilpean, arma tinko helduta zuelarik. Aurpegi baten silueta nabari zuen. Gehiago hurbildu zenean, aurpegia ondo ikusi zion: Davinia zen!

Neskari izua ikusten zitzaion aurpegian, eta negarez ari zen.

—Baina, zer gertatzen zaizu? —galdetu zion ezpata zorroan sartuz.

—Nire aitarena egin behar duzu!

Rafox zur eta lur geratu zen. Aginduak harrituta utzi zuen gizona.

—Zer? —galdetu zuen.

—Etorri nirekin —eta bera sartu zen tokia seinalatu zuen. Rafoxekek begiratu zuenean, gehiago harritu zen oraindik: lehen pareta zegoen tokian pasabide ilun bat ikusten zen orain. Haren barrenean eskailera batzuk ikusten ziren, paretan zintzilikatuta zeuden lastargiei esker.

Rafoxekek jarraitu egin zion, ez zekien zergatik, baina jarraitu egin zioan. Bihotza azkar mugitzen zitzaion, galdera egiteko unea iritsi zela iruditu zitzaion:

—Zure aitari buruzko istorio guztiak egiazkoak al dira? —Daviniaren begirada ilunak dena esan zion.

Eskaileretan behera jarraitu zuten, Rafoxi begiak alde batetik bestera mugitzen zitzaizkion, ahal zituen detaille guztiak hartuz.

Pisu bakoitzean, ate bat zegoen ezkerretara; ematen zuenez, pisu bakoitzeko gelarik garrantzitsuenera eramaten zuen atea zegoen. Pasadizoak gaztelua bezain zaharra ematen zuen.

Hamar pisu kontatu zituen beheraka, eta bera lo egiten ari zen gela, bederatzigarren pisuan zegoen. Batbatean, Davinia geratu egin zen.

—Hemen da. Ni banoa —esan eta goraka joan zen berriro.

*Ematen duenez, nirea ez den erreinu batean, nireak ez diren gaztelu eta lur batzuegatik borrokatu beharko dut* esan zuen Rafoxekek bere buruarentzat.

Atea ireki zuenean, sekulako kiratsa iritsi zitzaion. Mareoarekin bista pixka bat joan zitzaion. Orban beltz bat ikusten zuen, eta hura berarengana hurbiltzen hasi zen bizkor. Rafoxekek, ez zekien zergatik, gorputza alde batera bota zuen eta, mugimendu horrekin batera, ezpata atera zuen. Orban albotik pasa zitzaion. Rafoxekek buelta eman zuen, bista berreskuratu zuen eta aurreneko eguneko guardia ezagutu zuen. Mugimendu azkar batekin burua moztu zion.

Ingurura begiratu zuenean, ametsetan ikusten zuen toki berbera ikusi zuen. Baina oraingoan tripak buel-

taka hasi zitzaizkion, kiratsarengatik.

Aurrera jo zuen, eta beste tipo bat ikusi zuen. Hura mahai gainetik haragi pusketa handienak jasotzen ari zen, erdi beteta zegoen kubo batera botaz. Atzetik hurbildu zitzaion, eta ezpata lepoan jarri zion

—Nor da zure jauna? —galdetu zuen ozen eta mehatxuz.

—Ez dizu axola —esan zuen harrokeria bizian.

—Egia esan, nahigo dut nik bakarrik bilatu —eta lepoa moztu zion ezpatarekin.

Ezpata belzten hasi zen, baina odol tantarik ez zuen gainean.

Ate bat aurkitu zuen, eta berehala sartu zen handik.

Han zegoen Viridian jauna, Mistrinauteko jaun ankerra. Hari barrea atera zitzaion Rafox ikustean. Rafoxekek begiratu bat eman zion gelari: zaldunaren aurreko mahaian gizon bat zegoen etzanda, buruz gora, eta jaunari begira zegoela. Ahoa irekita zuen makina baten bidez. Rafoxekek, ondo begiratu arren, ez zion mingaina ikusi. Mahaiaren atzean, beste bi guardia zeuden. Haien korrika abiatu ziren Rafoxengana, ezpata eskuan zutelarik. Baina Rafox makurtu egin zen zertxobait eta, bira bat emanez, biak batera akabatu zituen.

Viridian bere ezpatarekin bakarrik geratu zen, irribarre zikin eta nazkagarri bat zuela ahoan. Rafoxekek bazekien ez zela guardiak hiltzea bezala izango.

Biak borroka zirraragarri batean murgildu ziren. Pareko indarra eta teknika zuten. Ezpaten soinua bakarrik entzuten zen gelaxka ilunean.

Halako batean, Rafoxekek aurkariaren ezpata airean bota zuen eta, dudarik egin gabe, tripan sartu zion berea, eta gero biratu egin zuen barruan zegoela.

\*\*\*

—Nik, Dagonaut erregeak, zu, Rafox, eta zure emaztea, Davinia, Mistrinauteko jaun eta dama izendatzen zaituztet.

# Coeroenin, 1972ko ekainaren 22an

*Ibai Zubizarreta*

Azkeneko pauso ezeroso eta txikiak emanaz, zuhaitz erraldoien basoan barneratu nindunan, kirioak itoz. Begien aurrean nuenari erreparatu aurretik, milaka hotsek gor-tu ninditenan. Txilio gordin eta sarkorrak, maiztasun handiko txistu atsegingarri batzuk eta uluen eta orroen arteko zenbait soinu nentzuzkinan. Oihartzuna egiten zitenan eta ohitu arte ez ninan lasai pentsatu eta aurre- jarraitzerik izan.

Landare eta liken ugari nitinan oinen azpian, berde, motzak eta labainak batzuk, goroldioak bailiran, gorrix- tak besteak eta baita loretxo ttipi eta fruitutxo berdex- kak ere, heldugabeak ziurrenik. Harri hotz eta grisek ere, lohi ganean eta berdez jantzita, bidea zailtzen zida- tenan.

Goroldioz erdi jantzita, erdi larru bizirik zeuden enbo- rren artean, aurrera jarraitzen ninan, hainbeste lakete niti- nan txoriño miragarriak eta erreka gardenak ikuste- kotan.

Ordu erdi igarotakoan topatu ninan lehen zabalgu- netxoa, arrunt zitzaidan belarrez estalia. Zerua ikus neza- kenan, lehentxeago ezin nuen bezala, erabat urdin eta eguzkia erregintzat zuela ekainean, puntu gorenean. Ingu- ratzen ninduten zuhaitz itzel haien artean ere berdin senti nitzakenan usain arrotz eta berezi haiek eta baita soinu liluragarri eta gorgarri haiek aditu ere.

Basoan barneratu nintzenean, jada bigarrengoz, usain heze eta gozo haiei segika hasi nindunan. Ezin nitinan hitzekin deskribatu, behin ere ez bainuen halakorik bes- te inon usaindu eta ezta berriz usainduko ere.

Gozotasun eta berotasun hartan murgilduta, ame- tsetan bezala, ibai baten ertzera heldu nindunan. Ez zinan hiru metroko zabalera izango baina bere kolore berde sakonak errespetua ezartzen zidan eta ez nin- dunan inola ere salto egitera ausartzen. Ederra izango luken umetako film txundigarri haietan bezala liana batetik helduta jauzi egitea, baina han ez zegoan zeru- tik zintzilik liana sendo eta erabilgarririk.

Soinu gor bat entzun ninan ezker aldean eta, zeru- tik eroria bezala, enbor bat ikusi ninan zubi txiki baten

gisan. Harriturik, ingurura begiratu eta orduan ikusi hindudan, enborren parean, zuhaitzen alboan zutik.

Ez hintzen metro eta erdi baino garaiagoa izango eta gaztetxo itxura bahuere ere, ez zirudinan gehiago hazi- ko hintzenik.

Larrua, zuhaitzen azala bezain lehorra huen, hezeta- sun handiari eta eguzkiari zor izango hion. Kolore ilu- nekoa hintzen edo zikina agian, gaztaina azalaren kolo- re bertsukoa. Gorputza, ezagun nitinan emakumeena ez bezala, gihartsu xamarra eta sendoa heukan, bizia aurrera ateratzeko beharrezkoa izango huena. Oinutsik hengoan eta zauri edo arrastadak hituen. Ilea nahasia eta beltz-beltza; tapaturik huen gune bakarria hankar- tea zunan, landare batzuek eginikoa zirudien jantzi bate- kin.

Han, zuhaitz artean zutik, beste mundu batetik eto- rriaren itxura huen, indartsu eta beldurgabea, erabat ausarta. Heroi edo horrelako martirren itxura dudarik gabe eta hots egin ninanean bakarrik desegin zitunan nire ideiak. Hire begi ilunei, gaua bezain ilunei, bel- durra zerien nabarmenki.

Beldurtu eta atzeratu egin hintzen eta hiregana nin- doala konturatu hintzenean itzuli eta atzera, korrika joan hintzen. Nik, momentuko topaketak erabat lekuz kanpo utzita, atzetik jarraitzeri ekin nionan, zertan ari nintzen konturatu gabe.

Deiadarka, behin eta berriz esan ninan gelditzeko, ez ninala ezer txarrik egin nahi. Begi bistatik galdu hin- dudan, ordea, segidan eta atzetik zetozkidan beso batzuek begiak tapatu zizkidatenan. Bihurrikatu nin- tzen arren, ez nindunan askatu saihetsetan pare bat ukon- doko eman nizkinan arte. Hura sorpresa hi hintzela ohar- tzean!

Berehala damutu nindunan eman ninan ukondokoaz eta hurreratu eta barkamena eskatu ninan. Begiratu nin- dunanean, beldurra baino harridura huen begietan eta barkatuta nengoela esan hidan. Ez ninan uste ulertuko hidanik; baina, antza, bahekien nederlandera.

Lasai eseri nindunan oraindik egin nuenaz ohartu

gabe eta non eta nola nengoen pentsatuz. Gaua berehala zetorrenan eta nire egoera erabat arraroa zunan. Zer egingo ninan baso erdian galduta ezezagun basati batekin? Begiratu hindudan eta hire begietan beldur berbera ikusi ninan, baina baita abenturarako gogoia edo antzeko zerbait ere. Berehala uxatu hizkidan nire beldurak eta lasaiago sentiarazi nindunan.

Gogoratzen haiz egun hartaz, ez? Eta nola ez, gauaz. Fantasia bat izan zunan, nire barnean bizirik dirauen amets goxo bat. Trukatu genitinan hitz gutxi haiek eta jarraian gertaturikoak ez zidan ez erargitzeko aukerarik eman. Oso gustura egon nindunan eta ez ninan inolaz ere gaua galderak eginez alferrik galdu nahi; apika, azken gaua izan zitekenan.

Goizean, esnatu nintzanean, jendartean nengonan, lurrean botea eta begi pila bat nire gainean iltzatuta. Berehala antzeman ninan hire herritarrak zirela, hi ere han tartean baihengoen, begiak malkoz beteta eta errukiz niri begira. Zer egin ninan, bada?

Lurretik altzarazi ninditenan bi gizonak. Biak ere ni baino handiagoak zitunan, indartsuak eta lepokoak eta tatuajeak beteak zeuden. Eskuak bizkar atzean lotu eta besapeetatik heldu zidatenan.

Bezperako beroaldiaz oroitu nindunan orduan eta bekatu bakarra hori izan zitekeela pasa zitzaidan burutik. Ez nekinan zein tribu edo herritakoa hintzen eta hire ohituren berririk ere ez ninan eta nik, inozo honek, ezin izan nionan tentaldiari eutsi gau batez behintzat. Edozein herrialdeko ohituretan ez legoken hau ondo ikusia; baina, gainera, horrelako gizarte atzeratu batean... Apika, ordea, hau nire ustea bakarrik izango zunan eta kanpotarra nintzelako hartuko ninditenan preso, azken finean ez dinat uste inork zelatatuak izan ginetik.

Herrixkatik 200 metro baino gertuago geundenan eta bidaia oso motza eta luzea izan zunan aldi berean. Bi gizonak besapeetatik helduta eraman ninditenan pertsona bitxi haien begiradapean. Eta iritsi nintzanean, gauza ez zen hobetu. Banbuzko barroteen artean pasa ninan eguna bi gazteren zaintzapean. Eskerrak behintzat eskuak libre utzi zizkidatenan, hain estu lotuak baintinon non ia ez zitzaidan odolirik iristen hatzen muturretara.

Hi non hintzen orduan?

Hurrengo goizera arte ez ninan lo hartzea lortu. Zer egin nezakenan? Hain zunan hura berezia eta ezezaguna niretzat! Gau osoan buruari bueltak eta bueltak eman nizkionan eta ez ninan erantzunik aurkitu galdera erra-

zenentzat ere.

Bat baino gehiagorekin hitz egiten saiatu nintzen arren, inork ez zidan ez erantzuten eta hi ere ez hindudan ikusi egun osoan.

Goizean goiz, ordea, gizon gizen eta tatuatu bat sartu zunan nirekin zeldan. Bere janzkera bereziak eta bere aurpegi pintatuak itxura xeble eta beldurgarria ematen ziotenan aldi berean. Hire hizkuntzan hitz batzuk egin ondoren, nire izena eta bertara azaltzeko arrazoiak eskatu zizkidanan. Esan nionan basoa asko gustatzen zitzaidalako barneratu nintzela hainbeste. Ez ninan arrastorik ere gizonak eduki zezakeen jakinduriaz eta ez nekinan zer erantzun niezaiokeen. Azken finean, hura leku zeharo utopikoa baitzen niretzat eta zuek ere asko harritu baitzineten ni ikusita. Hala ere ulertu zinan, baina kanpoko munduaz uste baino kontzientzia gutxiago zuela erakutsi zidan. Berak, ni basoko gaitz bat edo nintzela esan zidan eta ez zidala bizitza barkatuko bere herrixkari kalte egitea zelako nire helburua. Auskalo zertaz ari zen! Kontua zunan ez zidala bizitza barkatuko.

Hasieran ez ninan ulertu nahi izan, baina bene-benetan esan zinan, bai. Lasai altxa eta nire bila laster bueltatuko zela esan zidan eta gozatzeko azken momentuez.

Ahal nuen garrasi handienak egin nitinan eta behin eta berriz esan nionan aska nintzela, baina alferrik. Beste herritarrak jaikiak zitunan dagoeneko eta inongo gupidarik gabe begiratzen zidatenan haiek ere.

Ez zekinat zenbat denbora igaro zen, baina behin eta berriz eskatu nionan nire buruari amets hartatik esnatzeko. Negarrez eta garrasika nire senetik kanpo nengonan erabat. Nire golkorako tarteka eta besteetan herri osoarentzat hitz egiten ninan. Nire amari ere hitz egin niola uste dinat, zegoen tokian zegoela ere adituko zidalakoa.

Baretu nintzanean, sufrikarioa areagotu egin zunan, nire burua bueltaka hasi baitzen han egoteko arrazoiaren bila. Gazteegia nindunan eta ez ninan zer ikusirik bere herrixka kaltetzen zuten haiekin. Zer zunan bere herrixka kaltetzen zuten haien istorioa? Ez zinan garrantzirik baina jakin behar liken nik ez niokeela inoiz inoren herrixkari kalterik egingo! Inozenteegia izan naun betidanik! Hi ezagutu ez bahindu ez nindunan hilzorian egongo!

Arrastaka atera ninditenan "kartzelatik" eta hantxe utzi, lurrean belaunikatuta zutitzeko ere adorerik gabe,



aurpegira inori begiratzeko ere adorerik gabe, ez nekin zer zekarkidan patuak, baina agian horrela nitaz gupidatuko zitunan.

Jendearen zurrumurrua entzun ninan orduan. Nire aurrean zirkulu erdi bat eratuz, han zegonan herri osoa niri so eta atzean ere bazegoen taldetxoren bat. Batean isiltasuna nagusitu zunan eta bidea ireki zioten herritarrek beren buruzagi edo dena delako horri. Hi ez hindudan ikusten. Galdua ninan jada itxaropena. Batzuen aburuz, hori omen dun galtzen den azkena, baina sufrimendua besterik ez dakarrela uste dinatik, eta nahikoa buruhauste izan dinat bestela ere nire burua horrela martirizatzeko.

Gizonari barka ziezadan erregutu nionan eta berak, jaramonik egin gabe, bere lantza prestatzeari ekin zionan. Zerura altxa eta hainbat errezo esan zitinan. Makila altxa, niri begira jarri eta azken sastadarako prestatu zunan. Iritsia zunan unea. Isiltasun osoa eta mugimendu urduriak jendartean.

Azken begirada bat munduari eta agur bat nire barnerako. Begiak lantzaren puntan finkatu eta jarraian itxi.

—Dui! —nire aurrean zerbait mugitu zunan.

Begiak ireki eta hi ikusi hindudan nire aurrean, gizon hari begira eta besoak zabal ni babesteko.

Momentu hura izan zunan mirariengan sinetsarazi didan bakarra. Nahasmen handia sortu zunan eta hau baliatuz azkar altxa nindunan, inoiz erakutsi gabeko odol hotz eta erreflexuekin eta nire arropak zeuden tokira, zeldaren atzeko aldera, hurbildu nindunan lasterka. Zizpoleta hartu eta bi tiro egin nitinan zerura. Herri-tarrak, nahiko nahastuta bazeuden aurreko ikuskizunarekin, orain erabat beldurtu eta garrasika hasi zitunan. Nik momentu hura pasatzen utzi gabe alde egin ninan basora, betiere zizpoleta askatu gabe.

\*\*\*

Bi tiro egin eta alde egin huen inori ezertarako denborarik eman gabe. Nik han erdian zutik jarraitu nian, herritarrak bere onera itzuli eta arrastaka kaiolan sartu ninduten arte. Aitak oso ondo egin zian antzerkia eta zaintzaileen atentzioa bereganatu zuenean tximuak labana txiki bat ekarri zidaan eta banbuei eusten zieten sokak moztu eta ihes egin nian oihanera.

Hire arrastoari jarraituz guacamayoen txilio gordin eta zorrotzak eta tukanek egiten zituzten maiztasun handiko txistuak entzun nitian.

Enborren azaleko goroldioek azaltzen zidaten men-

debalderako bidea hartu huela. Nik pentsatzen nuena, Zaparira.

Atzo, hi kaiolan egon hintzen bitartean, aitarekin eduki nian hizketaldia. Bere istorioa kontatu zidaan berriz, aspalditxotik nekiena eta isilpean gorde nuena azken bi urteotan. Aita hi bezalakoa huen, kanpotarra, Coeroenira oporretan etorri huen eta maitemindu egin omen huen oihanaz eta hemen bizitzen jartzea erabakia zian. Herriko baten bitartez indigena bat ezagutu omen zian, bere ama hizkuntza eta basoan nola ibili irakatsi ziona. Tribu honetara nola iritsi eta buruzagi izendatzea nola lortu zian beste batean kontatuko diat. Kontua duk, betidanik nahi izan duela ni hemendik ateratzea, ez zakiat zergatik baina mila gauza eder kontatu zizkidak kanpoko munduari buruz eta lortu dik nigan hemendik alde egiteko gogoia piztea. Ez nian sinesten jainkoek gu hemendik atera ez gintez nahi zutenik eta are gutxiago aitak bere sekretua kontatu zidanetik. Sekretua zioat, besteek oihaneko semea dela uste dutelako, haien hizkuntza ezagutzen duelako.

Oraintxe gurutzatu diat errekatxoa jauzi batez, enborra alde batera utzita.

Hi ikusi hindudanean, biziraupen proba bat egiten ari ninduan etorkizunean buruzagiaren emaztea izateko. Ikusi hindudanean, nire barrenean lasaitasuna sentitu nian, nire ametsak bete balira bezala. Jarraika ibili ninduan, zer egin behar nuen pentsatzen. Aitaren hitzei jaramon eginez hire aurrean azaldu ninduan eta beldur pixka bat sentitu eta korrika hasi banintzen ere, berehala ohartu nintzen handik ateratzeko neukan aukera bakarra hintzela.

Ezagun nituen mila usain gozoen artean, hire izerdi usaina gero eta indar gehiagorekin nabaritzen nian.

Atzo gauean oso ondo pasa nian, konturatzerako loak hartu gintian nahigabe. Nire akatsa izan zuan, ez huke nire txabolatxoa ezagutu eta gau latz hartako sufrimendua jasan behar, baina itxaron egin behar nian, herritarrek nire aitarenganako susmo txarrik izan ez zezaten.

Hi etzanda egon hintzen zabalgunetxoa pasatu nian, oraindik hire gorputzaren marka nabaria zuena. Eguzkia igotzen bukatzen ari zela ikusi nian, bizi-bizi ibili behar nian, ezin nian berandu ailegatu.

Azkeneko pauso ezeroso eta txikiak emanaz zuhaitz erraldoien basotik atera ninduan, kirioak dantzan. Begien aurrean nuenari erreparatu gabe hire arrastoari segi nioan, txabolaraino. Oraindik garaiz nembilela zirudian.

Gaur, 12 ordu beranduago, nire etxerako bidea hartzeko aukera egin dun. Barrenak, ordea, ez nain lasai uzten. Buruan bueltaka zerabilzkinat nire aurrean jarri hintzeneko irudia, topatu gineneko irudia eta gau hartako beste irudi bat ere bai. Ezin izango dinat maite ez hindudanik eta bazekinat gau batez bakarrik ezagutzeak

ez duela hainbestearino ematen, baina... uste ninan maistasunagatik bizitza jokoan jartzea ez zuela merezi.

Hi, ordea, duda-mudatan ibili gabe jarri hintzen ni eta lantzaren artean eta beti eskertuko dinat.

# *Lurra eta zubaitza*

*Josu Galdos*

LURRA

1

Ama-lurra behin ikustea, entzutea, usaintzea,  
nahikoa bere epelean apaltzeko,  
lasaitzeko,  
eta gure erraiak esnatzeko.

Aspaldi honetan, ez dugu ez lurra ikusten, entzuten, usaintzen,  
arrotz egin zaigu lurra,  
arrotz gure ama.

Gure bakardadean,  
inolaz ezin beteta sentitu gure ama-lurra gabe,  
inolaz ezin gure hutsune izugarria bete.

Noraezean, toki guztietan asegaitz bilatzen dugun arren beteko  
gaituen zerbait,  
alferrik, ezinean.

Lurraren samina,  
gure samina...  
inoiz ez gara aseko, gure lurra ikusi ezean,  
garena ikusi ezean,  
esnatu ezean.

2

Ez nekien lurra ene erraietan zegoenik,  
ez eta,  
itsasoa ene odolean zegoenik,  
erraien sakontasunean lurraren samina entzun arte,  
odolaren pozoia usaindu ante,

3

Gauerdian, ekaitzaren erdian,  
basora egin dut jauzi, eta lur azpian murgildu naiz.  
Lur azpian igeri, isiltasunean.

Nekatu naizenean, lo-lurrak harrapatu nau.

Goizean, zuhaitz landare bat jaio da,  
ur egarriz,  
eguzki gosez.

ZUHAITZA.

1

Orain eta hemen,  
        zuhaitza bezala.  
Lurrean zainak ongi errotuaz,  
adarrak ortzian.  
Lurretik ortzira, eguzkirako bidean.

Gu ere,  
        orain eta hemen,  
        zuhaitza bezala.  
Oinak lurrean ongi errotuaz,  
besoak ortzian,  
        eta gogoa,  
        gogoa beti eguzkian.

2

Zuhaitz hartan zentzu guztiak pausatu nituenean,  
        nire barruko errautsak ederki harrotu ziren,  
        eta sua ere piztu zen.

# *Itsasoa garrasika ari zait*

*Marisa Arruabarrena*

Itsasoa garrasika ari zait.  
Ekaitza ekarri du.  
Olatuek barra berria jan nahi dutela dirudi.  
Goiko argi gorria da une honetan antzeman dezakedan bakarra.  
Antilla bera ere sastarrez beterik dago.  
Hondarraren arrastorik ez.  
Dena zikin, dena beltz.

Kukuarri behe lainoak irentsi du.  
Itsaspeko bidea ez da ikusi ere egiten.  
Desagertu da.  
Dena ilun, dena beltz.

Itsasoa garrasika ari zait,  
negarrez.  
Dena hautsi nahi du.  
Txikitu.  
Mila puska egin.  
Ez du amore emango.  
Haserre dago.  
Ilun, beltz.

Itsasoa garrasika ari zait,  
minduta.  
Ez du ezer ulertzen.  
Lehertu egingo da.

Itsasoa garrasika ar zait.  
Negarra ekarri du.  
Olatuek barra berria jan dute.  
Goiko argi gorria desagertu da.  
Ez dago.  
Antilla,  
hondarraren arrastorik ez.  
Dena zikin, dena beltz.

# *Mikala xat irri*

*Iñigo Gaiton*

Itsas-muga itsas ertz,  
gertu izan, bertan senti,  
ondoan leher.

Izkin ugariz orri urdin,  
sakon zein zabal,  
urezko zeru eder.

Eta badator tipi,  
erritmo trakets tapa.  
Hondarra lagun, bidea goxatu, bidea erraztu,  
harrizko kotoia.  
Ibilera berri,  
trakets,  
intentzioa patroï, oinarri.

Besoak goran, dantzari gisan,  
eskuinekoa amari,  
ezkerrekoa aitari.

Eta bi begiak plater dira,  
ileak tente,  
urduritasun gozoa.  
Ezinegonean egon,  
egonezinean ezin.

Farre.  
Keinu.  
Algara.

Eta gaur itsaso lasai,  
urdina zeharo,  
aparrik ez dago.

Kristala, zure usainak,  
edertasunak erakar dezala,  
uki kresalaz azala.

Hotzikara azalaren jabe,  
ile denak ados jarri ditu, zutik, tente.  
Bi ezpain ertzek, farreaz,  
ia belarriak ferekatu dituzte.

Mikala xat irri,  
xeran irri-farre,  
xiri erori miri,  
xiprixtin xuri guri.

Lehen sentipen gazi,  
lurraren zati heze,  
lehenbizi oinak sartu ditu,  
gurasoek esan bezalaxe.

Lehen pausua aurrena, zapaltzean,  
bizkor doazen uhintxo perfektuak sortu dituena.

“Nahi adina ur,  
ez izan itsasoaren beldur,  
naturaren nortasun urdina,  
gizakiok zikintzen dugu nahi adina”.  
Maitasunez amaren azalpena,  
igeri belarritxoetatik barrena,  
alferrik galduko ez dena,  
haurrak naturaz ikasi duena.

“Bota paaaaa itsasoari,  
egin eskuaz adio”  
eta honek esker modura,  
azken olatutxoa bidali dio.

# *Ireki begiak*

*Eñaut Martí*

Ihartuta daude arbolak  
gure mendi tontorretan,  
eta eguzki printzek  
ez dute orain,  
beti eman izan duten beroa ematen.

Jakin nahian nabil  
zergatik,  
itsaso bazterrean eserita;  
jakin nahian,  
zergatik kresalari  
gasoil kiratsak darion  
bere erraietatik.

Aspaldian,  
ez dabil txoririk  
gure ortzi ilunean,  
kabetan preso pasatzen dituzte egunak,  
bizitza noiz itzali zain,  
zerua bakarrizketa sakon batean  
sartu zen egun hartatik.

Amalurra  
triste dago,  
kopetilun,  
eta berak ni bezala  
ez du gauza askorik ulertzen,  
baina jada  
ez da konprenitzen saiatzen,  
etsi zion  
erantzun bat bilatzeari,  
egunez egun,  
aurrera egiteko  
indarrak bilatu beharrari.

Haizeak, bestalde,  
aire epel atseginez  
ferekatzen dit aurpegia,  
dena galdurik ez dagoela  
esan nahian,  
dena arnaitu ez dela oihukatuz.

Esperantza,  
galdu behar den  
azken zerbait hori,  
gauza,  
sentimendua dela,  
ulertarazi nahi dit.  
Baina zaila da  
larreak aspaldi utzi zituztenei  
hori sinistaraztea.

Etsipenak,  
behi,  
ardi  
eta abarrei,  
aisa, erraz,  
irabazi zien  
bizi gogoaren partida zentzugabea.

Ni, ordea,  
ez nago  
bukaera hau onartzeko prest,  
ez dut sinisten apokalipsian,  
nahiz eta  
gizakiaren suntsitzeko ahalmenak  
zenbait duda sortu dizkidan.

Urrutira begira,  
pentsakor,  
beste mila aldiz lez  
mundua konpontzeko saiakeran,  
kutsadura kea  
besterik ez da nire soluzioetan.  
Zaila zait  
hoge metro haruntz begiratzea,  
aurrerapena deitu zioten munstro horrek,  
ikusten zen dena  
lapurtu baitigu,  
eta utzi duen urriak ere,  
mindu egiten bainau;  
benetan,  
mintzen nau.

Ez da historik  
udaberrian ere,  
negu eternora kondenatu gaitu  
hainbesteko aurrerapen,  
diru,  
eta beste mila onura  
ekarri behar omen zituen  
txuriz jantzi nahi izan zuten  
borreroak.

Jada ni ere,  
atsekabeak irentsi nau,  
eta errudunak bilatzen  
pasatzen ditut azken orduak,  
herri honetan  
gustuko dugun moduan,  
elkarlanean aurrera egin ordez,  
herri honetan beti  
egin izan dugun moduan.

Handikeria, gehiegikeria...

Ez.

Maitasuna.

Maitasuna da erruduna;  
herni honengan genuen maitasuna,  
hain zuzen ere.

Maitasun horren eza.

Negar egin dezagun orain  
jada ezer aldatzerik ez dagoenean,

begiak itxita, pozik,  
barre egiten genuen bezala.

